



**OBRA-KONTRATUETARAKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN  
AGIRIA,  
PROZEDURA  
IREKIA – PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA – PROZEDURA IREKI SUPER  
SINPLIFIKATUA**



## **Edukien taula**

### **I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK**

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA ETA HELBURUA
2. KLAUSULA.- BALIO ZENBATETSIA, KONTRATUAREN AURREKONTUA ETA PREZIOEN BERRIKUSKETA
3. KLAUSULA.- KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA BETEARAZTEKO TOKIA
4. KLAUSULA.- ESKUDUN ORGANOA
5. KLAUSULA.- KONTRATUAREN IZAERA JURIDIKOA
6. KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKO APLIKAGARRIA
7. KLAUSULA.- ESKUDUN JURISDIKZIOA
8. KLAUSULA.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA
9. KLAUSULA.- AZPIKONTRATAZIOA
10. KLAUSULA.- KONTRATUAREN LAGAPENA

### **II. KAPITULUA: KONTRATUAREN LIZITAZIO-PROZEDURARI, BERMEEI, ADJUDIKAZIOARI ETA FORMALIZAZIOARI BURUZKO XEDAPENAK**

#### **A) KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA**

11. KLAUSULA.- KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA. LANBIDE-  
GAIKUNTZA
12. KLAUSULA.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

#### **B) KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA.**

13. KLAUSULA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA ALDERDI OROKORRAK.  
AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA.
14. KLAUSULA.- AZALPENAK
15. KLAUSULA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA
16. KLAUSULA.- KONFIDENTZIALITASUNA
17. KLAUSULA.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK
18. KLAUSULA.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA
19. KLAUSULA.- PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ADJUDIKAZIOA  
PROPOSATZEA
20. KLAUSULA.- DOKUMENTAZIO-ERREKERIMENDUA, BERMEA ETA  
ADJUDIKAZIOA
21. KLAUSULA.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

### **III. KAPITULUA: ZERBITZU-KONTRATUAREN XEDAPEN ZEHATZAK**

22. KLAUSULA.- KONTRATUAREN ARDURADUNA
23. KLAUSULA.- ZUINKETA ETA OBREN HASIERA EGIAZTATZEKO AKTA
24. KLAUSULA.- EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK
25. KLAUSULA.- OBREN GARAPENA. BETEBEHAR ZEHATZAK
26. KLAUSULA.- LANEN PROGRAMA
27. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA
28. KLAUSULA.- EPEAK BETETZEA



- 29. KLAUSULA.- ZIGORRAK
- 30. KLAUSULA.- OBRAK AMAITZEA.-HARRERA
- 31. KLAUSULA.- BERME-EPEA
- 32. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

#### **IV. KAPITULUA: AZKEN XEDAPENAK**

- 33. KLAUSULA.- EGINDAKOA ORDAINTZEA
- 34. KLAUSULA.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BENETAKO BERDINTASUNERAKO ETA INGURUMEN-BABESERAKO BETEBEHARRAK (LANEKOAK ETA SOZIALAK).

#### **ERANSKINAK**

- I. ERANSKINA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (AUTOMATIKOAK) PROPOSATZEKO EREDUA
- II. ERANSKINA: LOTUTAKO ENPRESAK DEKLARATZEKO EREDUA
- III. ERANSKINA: BBUPren INGURUMEN-BETEKIZUNAK ETA -ARAUAK.
- IV. ERANSKINA: PERTSONA JURIDIKOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA.
- V. ERANSKINA: PERTSONA FISIKOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA.
- VI. ERANSKINA: ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO EREDUA.
- VII. ERANSKINA: KONTRATU NAGUSIKO PRESTAZIOEN ZATI BAT EGITEKO AZPIKONTRATAZIO-PROPOSAMENA
- VIII. ERANSKINA: ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN GEHIGARRIA.



## **OBRA-KONTRATUAK PROZEDURA IREKIAREN, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAREN ETA PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATUAREN BIDEZ ADJUDIKATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRI TIPOA**

### **I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. KONTRATUAREN XEDEA ETA HELBURUA.**

Kontratuaren Ezaugarrien Taularen B.1) apartatua aipatzen diren obrak kontratatzeko alderdi juridiko, administratibo eta ekonomikoetan gailendu behar diren eskubideak eta betebeharrak zehazteko itunak eta baldintzak ezartzea da agiri honen helburua.

Hori guztia, B.2) apartatua adierazitako premiak asebetetzeko.

Ezaugarrien Taularen B.4) apartatua, CPV kodea jasotzen da.

Kontratua hainbat sortatan zatituta badago, lizitatzailerik sorta bat, hainbat sorta edo sorta guztiak eskatzeko aukera izango dute, eta sorta bat, batzuk edo guztiak adjudikatu ahalko zaizkie, lizitatzailerik bakoitzeko gehieneko sorta-kopururik ezarri bada salbu parte-hartzearen eta/edo adjudikazioaren ondorenetarako; hala, Ezaugarrien Taularen B.3) apartatua xedatutakoari helduko zaio.

Aldaerei dagokienez, Ezaugarrien Taularen B.5) apartatua ezarritakoa gailenduko da.

#### **2. BALIO ZENBATETSIDA, AURREKONTUA ETA PREZIOEN BERRIKUSKETA.**

- Kontratuaren balio zenbatetsia.

Kontratu honen balio zenbatetsia Ezaugarrien Taularen C.2) apartatua adierazitakoa da.

Kontratu baten balio zenbatetsia kalkulatzeko, guztizko zenbatekoa hartzen da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) sartu gabe. Kalkulu hori egiteko, honako hauek hartuko dira kontuan: zenbatetsitako zenbateko osoa, barruan hartuta kontratuaren balizko edozein aukera mota, kontratuaren balizko luzapenak, kontratuari egindako aldaketen zenbatekoa –lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoaren gainean kalkulatu– eta, hala badagokio, hautagai edo lizitatzailerentzako sariak edo ordainketak, baita, hala egokituz gero, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 101. artikuluan jasotzen diren gainerako alderdiak ere (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egin zen Espainiako ordenamendu juridikora).

Lizitazioaren aurrekontua.

Kontratazioaren gehieneko gastu-aurrekontua, zeina lizitazioaren oinarria baita eta kontratuaren hasierako indarraldirako aurreikusi baita, BEZa kenduta, Ezaugarrien Taularen C.1) apartatua jasotzen da.

Adierazitako aurrekontuan nahiz lizitatzailerik egiten dituzten eskaintzetan, honako hauek sartu direla ulertu behar da: balorazio-faktore guztiak, adjudikaziodunak



kontratatu den prestazioa normal betetzeko egin behar dituen gastuak eta indarreko xedapenen arabera aplikagarriak diren edozein motatako zergak, BEZa kenduta.

Aurrekontu hori gainditzen duten proposamenak baztertu egingo dira.

Behar den aurrekontu-kreditua dago, Ezaugarrien Taularen C.4) apartatuan adierazitako zenbatekoan eta aurrekontu-partidetan.

Ezaugarrien Taularen arabera espedientea aldeztu aurretik izapidetzen bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura kreditu egoki eta nahikoa baldin badago adjudikatuko da kontratua. Halaber, kontratazioa beste ekitaldi batzuetara luzatzen bada, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak urteroko aurrekontuetan esleitu beharko ditu kontratazioak eskatzen dituen gastuetarako zenbatekoak.

Obrak hainbat urtetan egingo badira, kreditu nahikoa dagoela eta etorkizunean erabili ahalko dela jasoko da kontratuaren Ezaugarrien Taularen C.1) apartatuan.

Kanpo-finantzaketarik egonez gero, Ezaugarrien Taularen C.6) apartatuan jasoko da.

- Prezioen berrikusketa.

Ezaugarrien Taularen C.5) apartatuak hala jasotzen badu, prezioak berrikusiko dira. Horrelakoetan, apartatu horretan adierazitako indizea edo formula erabiliko da, bat etorrita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 103-105. artikuluekin.

### **3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA BETEARAZTEKO TOKIA.**

- Kontratuaren iraupena.

Ezaugarrien Taularen D) apartatuan finkatuko dira hala kontratuaren iraupena, nola ezar litezkeen epe partzialak (edo kontratua adjudikatzearen ondoriozkoa, adjudikaziodunak aurkeztutako proposamenaren arabera), eta obren zuinketa egiaztatzeko akta idatzi eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen, baldin eta erreserbarik ez badu; bestela, kontratua formalizatu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen, edo, prozedura ireki super sinplifikatuen kasuan, adjudikazioaren jakinarazpena onartu eta hurrengo egunean.

Halere, kontratuaren arduradunak adierazi ahalko du kontratua hasteko egun zehatza, espedientearen jaso.

- Kontratua betearazteko tokia.

Ezaugarrien Taularen D.5) apartatuan adieraziko da kontratua betearazteko tokia.

### **4. ESKUDUN ORGANOA:**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren izenean diharduen kontratazio-organoa Ezaugarrien Taularen A.2) apartatuan adierazten dena da.

### **5. KONTRATUAREN IZAERA JURIDIKOA**

Kontratu hau administrazioaren obra-kontratu bat da.



## **6. ARAUBIDE JURIDIKO APLIKAGARRIA.**

Kontratu hau administrazio-arlokoa da, eta agiri honetan xedatzen denaren arabera gauzatuko da. Hala, agiri hau da kontratuaren legea, eta indar loteslea dauka bi aldeetarako. Halaber, aintzat hartuko da preskripzio tekniko partikularren agiria (PTP) ere, eta, bi agirietan jasotzen ez den guztian, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeari eta gainerako araudi aplikagarriari helduko zaie.

Agiri honek, PTPak eta kontratuaren Ezaugarrien Taulak, kontratuaren eranskinak eta gainerako dokumentu erantsiek kontratu-izaera izango dute. Obra-proiektuak eta zuinketa egiaztatzeko aktak ere kontratu-izaera izango dute.

Agiri hau eta gainerako kontratu-agirietatik edozein bat ez badatoz, agiri hau gailenduko da. Era berean, kontratuaren adjudikaziodun suertatzen den eskaintza tekniko eta ekonomikoak kontratu-izaera izango du, baita, hala badagokio, kontratua formalizatzen agiriak ere.

Kontratuaren edozein baldintza, gainerako kontratu-agiriak eta itundutako gauza egitean aplikagarriak diren jarraibideak nahiz araudia ez ezagutzeak ez du horiek betetzetik salbuetsiko adjudikazioduna.

Ezaugarrien Taularen C.6) apartatuan xedatutakoaren arabera Europak kontratu hau finantzatzen badu, kontratazioa ituneko xedapenen mende geratuko da, baita itunaren arabera finkatutako egintzen mende ere, eta bat egingo du Batasunak garapen jasagarriaren eta ingurumen-hobekuntzaren alde abiatzen dituen jarduerekin, politikekin eta lehentasunekin; hala, hazkundera, lehiakortasuna, enplegua eta gizarte-inklusihoa sustatu beharko ditu, baita gizonen eta emakumeen berdintasuna ere, bat etorrita honako erregelamendu honekin: 1303/2013 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2013ko abenduaren 17koa, Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsari eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen komunak ezartzen dituen, baita Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen orokorrak ere, eta Kontseiluaren 1083/2006 Erregelamendua (EE) indargabetzen duena. Bestetik, kontratazioak bete egin beharko du Batzordearen 2014ko martxoaren 3ko 480/2014 Erregelamendu Eskuordetuan (EB) xedatzen dena (erregelamendu horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamendua (EB) osatzen du). Kontratistak informazio- eta publizitate-neurriak bete beharko ditu, zeinak erregelamendu hauetan baitaude ezarrita: Batzordearen 2006ko abenduaren 8ko 1828/2006 Erregelamendua (EE) (Kudeaketa Erregelamendua, 8. artikulua), irailaren 1eko 846/2009 Erregelamenduak (EE) egindako aldaketekin, eta Batzordearen irailaren 17ko 832/2010 Erregelamendua (EB).

## **7. JURISDIKZIO ESKUDUNA.**



Agiri honen kontra eta agiria betearazteko ematen diren ebazpenen kontra, aukeran, errekurtsio hauek jarri ahalko dira:

- Aukerako berraztertzeko errekurtsioa, kontratazio-organoaren aurrean, bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin, hilabeteko epean.
- Kontratazio publikoari buruzko errekurtsio berezia, Ezaugarrien Taularen Q) apartatuaren arabera hala egokitzen denean, Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren (OARC/KEAO) aurrean, baliodun hamabost eguneko epean, bat etorrita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 50. artikularekin. Adjudikazioa errekurritzen bada, egintza hau berehalakoan etengo da.
- Administrazioaren aurkako auzi-errekurtsioa, administrazio-bidea amaitutakoan, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da epea, bat etorrita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatzen denarekin.

## **8. KONTRATATZAILEAREN PROFILA**

Kontratazio-organoaren kontratatzailearen profila ikusteko, Interneteko helbide hau erabili behar da: [www.consorciod eaguas.com](http://www.consorciod eaguas.com)

Profilean eta Eusko Jaurlaritzaren Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman ([www.comcontratacion.euskadi.eus](http://www.comcontratacion.euskadi.eus)) argitaratuko da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 63. artikuluan jasotzen den informazio guztia.

## **9. AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratistak prestazioaren zati bat itundu ahalko du hirugarrenekin, baldintza-agirietan xedatzen denarekin bat etorriz, betiere Ezaugarrien Taularen O) apartatuaren arabera kontratistak prestazioa edo prestazioaren zati bat zuzenean egin behar ez badu.

Azpikontratuek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

1. Ezaugarrien Taularen O) apartatuan hala jasotzen bada, lizitatzailleek kontratuaren zer zati azpikontratatu nahi duten adierazi beharko dute eskaintzan, zenbatekoa eta enpresaren izena edo profila adieraziz, zeina lana egiteko enkargua jasoko duten azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoaren arabera izango baita. Eskaintzan adierazitakoez bestelako enpresaburuekin egiteagatik edo eskaintzan adierazitakoez bestelako prestazio-zatiak azpikontratatzeko eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak ezingo dira egin, harik eta hogeitau egun igaro arte jakinarazpena egin eta kontratatzeke debekurik ez dagoela adierazten duten egiaztagirak aurkezten direnetik, salbu eta aurretik berariaz baimendu badira, betiere Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak epe horren barruan horien aurka dagoela jakinarazi ez badu.

Araubide hori aplikatuko da, baldin eta azpikontratistak eskaintzan identifikatu badira, haien lanbide-profila deskribatuz.

2. Nolanahi ere, kontratistak idatziz adierazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, beranduenez, kontratua betearazten hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, azpikontratatu nahi duen prestazio-zatia zein den eta azpikontratistaren nortasuna, harekin harremanetan jartzeko



datuak eta haren legezko ordezkaria eta ordezkariak zein diren adieraziz; halaber, azpikontratataren elementu teknikoak eta giza elementuak eta eskarmentua direla-eta, prestazio-zati hori gauzatzeko gai dela justifikatu beharko du, eta kontratatzeke debekurik ez daukala egiaztatuko.

Kontratu nagusia betearaztean informazio hori aldatzen bada, kontratista nagusiak idatziz eman beharko dio aldaketa horien berri kontratazio-organoari, baita azpikontratista berriei buruz behar den informazio guztia ere.

Azpikontratatistak azpikontratatu den zatia egiteko sailkapen egokia badu, nahikoa izango da sailkapen horren berri ematea lana egiteko gai dela egiaztatzeke.

Azpikontratatistaren gaitasuna azpikontratua sinatu eta berehala egiaztatu ahalko da, premiazko egoera bati edo premiazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati erantzuteke behar bada eta nahikoa justifikatzen bada.

3. Ezaugarrien Taularen O) apartatuan, zenbait zeregin kritiko azpikontratatu ezingo direla ezarri ahalko da; horrelakoetan, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu zereginok. Kontratazio-espeditentean, justifikatu egin beharko da zein zeregin jotzen diren kritikotzat.
4. Azpikontratatistak kontratista nagusiaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta. Ezingo da aplikatu Kode Zibilarren 1.597. artikuluko ekintza zuzena.
5. Kontratistak informazioa eman beharko die azpikontratatuak langileen ordezkariari, lan-arloko legediarekin bat. Halaber, Ezaugarrien Taularen L) apartatuan jasotzen diren exekuzio-baldintzen berri eman beharko die enpresa azpikontratatistei, eta enpresa horiek ere baldintzok bete beharko dituzte.
6. Kontratistak faktura aurkeztu eta hogeita hamar egun naturaleko epean ordaindu beharko die azpikontratatistei edo hornitzaileei hitzartutako prezioa, itundutako epe eta baldintzetan. Faktura onesteko epea ez da hogeita hamar egun naturalekoa baino handiagoa izango, aurkezten denetik zenbatzen hasita.

## **10. KONTRATUAREN LAGAPENA**

Kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratatistak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarri izan ez badira eta lagapenak merkatuan lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.

Ezingo da baimendu hirugarren bati lagatzea, kontratatistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

Kontratistek beren eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, baldintza-agirietan, gutxienez, honako betekizun hauek jaso beharko dira:

- Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik lagapena baimentzea.
- Baimen hori emateko, betekizun hauek bete beharko dira beti:
  - Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 gauzatu izana edo, obra-emakidako edo zerbitzu-emakidako kontratua denean, kontratuaren iraupen-epearen gutxienez bostena ustiari izana. Baldintza hori ez da aplikatuko, lagapena gertatzen bada kontratista konkurtsoan dagoela, nahiz eta likidazio-fasea ireki, edo konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi bazaio birfinantzaketa-akordio bat lortzeko negoziazioak hasi dituela edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikimenduak lortzeko negoziazioak hasi dituela, konkurtso-legerian aurreikusitako baldintzetan.



- Aurrekoa gorabehera, hartzekodun pignorazioak edo hartzekodun hipotekarioak lagapena eskatu ahal izango du, baldin eta, obrak eta zerbitzuak emateko kontratuetan, pleguek aurreikusten badute, klausula argi eta zalantzarik gabekoen bidez, hirugarren bat subrogatu ahal izango dela emakidadunaren eskubide eta betebeharrak guztietan, emakidaren egungo edo etorkizuneko bideraezintasunaren zantzu argi eta lehenetsiren bat egonez gero, betiere alde aurreko suntsiarazpena saiheste aldera.

Lagapen-hartzaileak administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna izatea, bai eta kontratua gauzatzeko fasearen arabera eska daitekeen kaudimena edukitzea ere. Baldintza hori lagatzaileari eskatu bazaio, behar bezala sailkatuta egon beharko du, eta ez du kontratatze debekurik izan beharko.

## **II. KAPITULUA: KONTRATUAREN LIZITAZIO-PROZEDURARI, BERMEEI, ADJUDIKAZIOARI ETA FORMALIZAZIOARI BURUZKO XEDAPENAK**

### **A) KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA**

#### **11. KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA.**

1) Pertsona natural zein juridikoak lehiatu ahalko dira prozedura honetan, espainiarrak nahiz atzerriarrak izan, banaka nahiz aldi baterako elkarteetan multzokatuta (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 69. art.), jarduteko erabateko gaitasuna izanik, baldin eta lege horren 71. artikuluan edo beste xedapen aplikagarri batean adierazitako inguruabarretako batean ez badaude.

Pertsona juridikoak direnean, baldintza-agiri honen xede den kontratuko prestazioek bat egin beharko dute haien estatutuen edo sortze-arauen arabera berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuarekin.

2) Bestetik, interesdunek egiaztatu egin beharko dute kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa daukatela, ekonomiaren edo finantzen arloko arazoiek ez dezaten galarazi kontratua ondo betearaztea. Kontratua betearazteko, era berean, kaudimen tekniko edo profesional egokia izan beharko dute, eta, hala badagokio, baita beharrezko lanbide-gaikuntza ere.

Ezaugarrien Taularen F) eta G) apartatuetan zehazten diren bitartekoen bidez egiaztatuko da guztia.

500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetan, kontratista enpresa sortu berria denean (hau da, bost urte baino gutxiagoko antzintasuna duenean), bi modutara egiaztatu ahalko da kaudimen teknikoa: edo obra-kopuru jakin bat eginda, Ezaugarrien Taularen G) apartatuan hala eskatu bada eta enpresak egiaztatze horiek badauzka, edo, bestela, G) apartatuan enpresa sortu berrientzat berriaz adierazitako bitartekoen bidez.

3) Beste enpresa batzuei erreferentzia eginez egiaztatzea kaudimena.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatze aldera, enpresaburua beste entitate batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahalko da, haiekiko loturen izaera juridikoa gorabehera, betiere kontratua bete bitartean kaudimen eta baliabide horiek erabili ahalko dituela egiaztatzen badu eta delako entitateak kontratatze debekurik ez badu.



Baldintza beretan, 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako enpresa-elkarteetan multzokatuta lehiatzen diren enpresaburuek aldi baterako elkarte horretakoak ez diren entitateen gaitasunetara jo ahalko dute.

Halere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 90.1.e) artikuluan adierazten diren ikasketen tituluei eta titulu profesionalei buruzko irizpideei edota egokitzen den lanbide-eskarmentuari dagokienez, enpresek beste entitate batzuen gaitasunetara jo ahalko dute, baldin eta gaitasun horiek beharrezkoak badira delako obrak egin edo zerbitzuak emateko.

Enpresa batek beste entitate batzuen gaitasunetara jo nahi duenean, beharrezko baliabideak erabili ahalko dituela erakutsiko dio erakunde adjudikatzailerari, entitate horien idatzizko konpromisoa aurkeztuta.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerak aurkeztuko du aurreko paragrafoan aipatutako konpromisoa.

Enpresa batek beste entitate batzuen gaitasunetara jotzen badu kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren inguruko irizpideei dagokienez, kontratua gauzatzean baterako erantzunkidetasuna izatea eskatu ahalko die erakunde adjudikatzailerak enpresa horri eta besteei, baita modu solidarioan jarduteko bada ere.

## **12. BEHIN-BEHINEKO BERMEA**

Lizitazio honetan parte hartzeko, aurretik ez da behin-behineko bermerik eratu beharko.

## **B) KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA.**

### **13. PROPOSAMENAK AURKEZTEA. ALDERDI OROKORRAK. AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA.**

1) Lizitatzailerak bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahalko du. Era berean, banaka jardun badu, ezingo du eskaintzarik sinatu beste lizitatzailerak batzuekin (aldi baterako enpresa-elkartean), ezta enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.

2) Lizitatzailerak, proposamen bat aurkezten badu, baldintzarik gabe onartzen du kontratua gidatzen duten baldintza-agirietan jasotzen diren klausula edo baldintza guztiak, salbuespenik gabe.

3) Lizitazioa elektronikoa bada, Ezaugarrien Taularen I) apartatuan xede horretarako adierazten den helbide elektronikora bidali beharko dira eskaintzak.

Elektronikoak EZ diren lizitazioetan, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Kontratazio Zuzendariordetzan aurkeztuko dira proposamenak, San Bizente kaleko 8. zenbakiko 4. solairuan (Albia I eraikina).

Proposamena postaz bidaltzen denean, postetxean zein egunetan bidali duen egiaztatu beharko du lizitatzailerak, eta kontratazio-organoari iragarri proposamen telex, fax edo telegrama bidez bidaliko duen. Ondorio horietarako, aipatutako Kontratazio Zuzendariordetza izango da iragarki hori jasotzeko gaituta egongo den bakarra. Hauxe da fax-zenbakia: 94 487 31 10. Horrez gain, posta elektronikoz bidali ahal izango da Ezaugarrien Taularen A.4) apartatuan jasotako helbide elektronikora, eta postetxean



bidalketa egin izanaren egiaztatzea erantsi beharko du. Posta elektronikoz bidaltzen den iragarkia baliagarria izango da, jasota geratzen baldin bada igorri eta jaso dela eta jakinarazpenen eduki osoa eta datak ere jaso badira. Gainera, modu sinesgarrian identifikatu beharko dira bidaltzailea eta hartzailea. Bi betekizun horiek betetzen ez badira, ezin izango da proposamena onartu, betiere kontratazio-organoak lizitazioaren iragarkian jasotzen diren egun eta ordua amaitu ondoren jasotzen badu. Dena dela, adierazitako egunetik hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, inola ere ezingo da onartu.

4) Eskaintzak aurkezteko epea. Ezaugarrien Taularen I) apartatuan adierazitakoa.

#### **14. AZALPENAK**

Interesdunek baldintza-orriei eta egokitzeak jotzen duten gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatu ahalko dute, Ezaugarrien Taularen A.4) apartatuan agertzen den emailera idatzita; beranduenez, eskaintzak aurkezteko epemuga iritsi baino sei egun natural lehenago erantzunago zaie informazio-eskaerei, betiere eskaintzak aurkezteko azken eguna baino hamabi egun natural lehenago bidali badira. Erantzunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kontratazio-profilean argitaratuko dira.

Premiazkotzat jotako espedienteetan, erregulazio harmonizatuko obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetan, beranduenez ere eskaintzak aurkezteko epemuga iritsi baino sei egun natural lehenago erantzuteko epea lau egun naturalekoa izango da, betiere prozedura ireki eta murriztu baten bidez adjudikatzen badira.

#### **15. . PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.**

##### **A) GUTUNAZALEN EDUKI KOMUNA PROZEDURA MOTA GUZTIETAN (PROZEDURA IREKIAN, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAN ETA PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATUAN):**

Lizitazioa elektronikoki izapidetzen denean, proposamenak hiru fitxategi elektronikotan aurkeztuko dira, izen hauekin:

- 1.- DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA
- 2.- BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA
- 3.- MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Elektronikoak EZ diren prozeduretan, dokumentazioa gutunazal itxietan aurkeztuko da, kanpoaldean datu hauek dituztela:

|                                |                                                                                                                   |
|--------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>GUTUNAZALA</b>              | 1, 2 eta 3                                                                                                        |
| <b>DOKUMENTAZIOA</b>           | ADMINISTRATIBOA, BALIO-IRITZIEN<br>ARABERAKO IRIZPIDEAK, MODU<br>AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEZKEEN<br>IRIZPIDEAK |
| <b>ESPEDIENTE-ZK.:</b>         | XX                                                                                                                |
| <b>LIZITAZIOAREN IZENBURUA</b> | XX                                                                                                                |



|                                     |    |                   |
|-------------------------------------|----|-------------------|
| <b>SOZietatearen izena</b>          | XX | <b>IFK XX</b>     |
| <b>SOZietatearen helbidea</b>       | XX |                   |
| <b>AHALDUNAREN izena</b>            | XX | <b>NAN-zk. XX</b> |
| <b>KOMUNIKATZEKO EMAILA</b>         | XX |                   |
| <b>HARREMANETARAKO TELEFONO-ZK.</b> | XX |                   |
| <b>HARREMANETARAKO FAX-ZK.</b>      | XX |                   |

2. gutunazala edo fitxategi elektronikoa (balio-iritzien arabera irizpideak) balio-iritzien arabera irizpideak daudenean bakarrik aurkeztuko da; hala izan ezean, 1. eta 3. gutunazalak aurkeztuko dira.

Bi kasuetan, dokumentazio hau sartu beharko da:

#### **A1) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA DAKARREN GUTUNAZALA:**

- Erantzukizunpeko adierazpena, eranskinetan erantsitako ereduarekin bat, edo kontratazio-agiri europar bakarra, lizitazio bakoitzarekin batera argitaratuko den ereduarekin bat.
- Aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) lehiatuz gero, kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Era berean, kontratuaren adjudikaziodun suertatuz gero, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta bakoitzaren izena, inguruabarrak eta ABBEko partaidetza zehaztu.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 75. artikuluan xedatzen denaren arabera lizitatzailerak beste entitate batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, entitate haiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, bakoitzak berea.
- Eskaintzailearekin lotutako enpresen zerrendaren erantzukizunpeko adierazpena, administrazio-klausula partikularren agiriaren II. eranskinarekin bat.
- Hala badagokio, konfidentzialtasun-adierazpena, baldintza-orri honen 15. klausulan adierazitako baldintzetan.
- Hala badagokio Ezaugarrien Taularen H1) apartatuan ezartzen den dokumentazio osagarria.

#### **A2) BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEI (IRIZPIDE KUALITATIBOEI) BURUZKO DOKUMENTAZIOA DAKARREN GUTUNAZALA:**

- Ezaugarrien Taularen K) apartatuan, balio-iritzien bidez kuantifika daitezkeen irizpideak ezartzen dira eskaintzak baloratzeko. Bada, lizitatzailerak beren eskaintzak irizpide horien arabera baloratu eta haztatze behar diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.
- Gutunazal honetan, inola ere ez dira jaso behar ez eskaintza ekonomikoa bera, ez eskaintza ekonomikoaren dokumentu garrantzitsuak, ez modu automatikoan kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentuak.
- Ezaugarrien Taularen B.5) apartatuan aldaerak (hobekuntzak) aurkezteko aukera ematen bada, proposatzen diren aldaerek zuzeneko lotura izan beharko dute kontratuaren xedearekin, eta ekonomikoki baloratuta egon, apartatu horretan ezarritako baldintzak betetzearekin batera. Hobekuntza horiek, baldin



eta kontratazio-organoak adjudikazio-erabakian berariaz onartzen baditu, kontratuaren zati izango dira.

### **A3) MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA DAKARREN GUTUNAZALA.**

- Gutunazalak proposamen bakarra jasoko du barruan, lizitatzailleak edo haren ordezkioak sinatuta eta agiri honen I. eranskineko ereduarekin bat etorritik idatzita.
- Hala badagokio Ezaugarrien Taularen H) apartatua ezartzen den dokumentazio osagarria.

Hala ere, B.5) apartatua aldaerak aurkezteko aukera ematen bada, baimendutako adina soluzio edo aldaera aurkeztu ahalgo dira, eta, ondorioz, baita askotariko eskaintza ekonomikoak ere.

- Eskaintza ekonomikoan, partida independente gisa adieraziko da zenbateko BEZa jasanaraziko den.
- Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du gainditu kontratuaren lizitazio-aurrekontua.
- Ondoren guztietarako, eskaintako prezioan kontzeptu guztiak sartu direla ulertuko da, edozein esfera fiskaltako gastuak, tasak eta arielak nahiz kontratistaren onura industriala barne hartuta baina BEZa kenduta, partida independente gisa ezarriko baita.

Ez dira onartuko administrazioaren ustez eskaintza balioesteko funtsezkoak diren alderdiak argi eta garbi ezagutzea galarazten duten omisioak, akatsak edo marratzeak dauzkaten proposamenak, ezta aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat egiten ez dutenak, lizitazio-aurrekontua gainditzeko dutenak, agiri honen I. eranskinean ezarritako proposamen-eredua asko aldatu dutenak, konparaziozko zifrak dauzkatenak (adibidez, "proposamen merkeenak baino 'hainbat gutxiago' edo 'ehuneko hainbat gutxiago' bezalako esamoldeak dauzkatenak) edota lizitatzailleak onartutako akatsak edo funsgabetasunak dauzkatenak eta, beraz, bideraezinak direnak ere.

**Hizki bidez eta zenbaki bidez adierazitako eskaintzak bat ez badatoz, hizki bidez idatzitako zenbatekoa lehenetsiko da, kasu hauetan izan ezik: lizitazio mota zenbateko horrek bakarrik gainditzeko duenean edo, dokumentazioa aztertu ondoren sortutako arrazoizko irizpideak erabiliz, kontratazio-mahaiak beste jarrera bat hartzen duenean.**

**Eskaintza ekonomikoaren kontuetan akatsik eginez gero, zuzendu egingo dira.**

**Eskaintzak baztertzea ez dakarten kontraesanak badaude, administrazioarako onuragarriena dena hartuko da kontuan.**

### **B) PROZEDURA MOTA BAKOITZAREN EDUKI ZEHATZA. Aurreko apartatua adierazitako dokumentazioaz gainera, honako hau ere aurkeztu beharko da:**

#### **B1) ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN ETA EZ-HARMONIZATUAREN MENDEKO PROZEDURA IREKIAN AURKEZTEKOA**

Proposamenak **HIRU GUTUNAZAL/FITXATEGI ELEKTRONIKO ITXITAN (1, 2 eta 3)** aurkeztuko dira, kanpoaldean kontratuaren izena dutela, honako hau idatzita:

- 1. GUTUNAZALA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.



- 2. GUTUNAZALA: BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK. (balio-iritzien araberako irizpiderik ez badago salbu).
- 3. GUTUNAZALA: MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

Eskatutako dokumentazioa:

1. GUTUNAZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA:

- A1) apartatuan adierazitako dokumentazioa sartu behar da.

2. GUTUNAZALA: BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK (balio-iritzien araberako irizpiderik ez badago salbu).

- A2) apartatuan adierazitako dokumentazioa sartu behar da.

3. GUTUNAZALA: MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

- A3) apartatuan adierazitako dokumentazioa sartu behar da, eta, hala badagokio, baita Ezaugarrien Taularen H) letran ezarritako dokumentazio teknikoa ere.

## **B2) PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAN AURKEZTEKOA (SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO LEGEAREN 159.1 ART.).**

Proposamenak **GUTUNAZAL/FITXATEGI ELEKTRONIKO BATEAN** aurkeztuko dira, kanpoaldean kontratuaren izena dutela, honako hau idatzita:

1. GUTUNAZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA PROPOSAMENA.

- A1) eta A3) apartatuetan adierazitako dokumentazioa sartu behar da.

Balio-iritzien araberako irizpideak baloratzen badira, proposamenak **BI GUTUNAZAL/FITXATEGI ELEKTRONIKOTAN** aurkeztuko dira, honako hau idatzita:

1. GUTUNAZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK.

- A1) eta A2) apartatuetan adierazitako dokumentazioa sartu behar da.
- Eskaintzak aurkezteko azken egunean Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo dagokion autonomia-erkidegoko erregistro ofizialean inskribatu izanaren ziurtagiria, Ezaugarrien Taularen H.1) apartatuan beste zerbait ezarri ezean. **Ziurtagiri horrekin batera, ziurtagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena erantsi behar da.** Ondoren horietarako, nahitaezko dokumentazioarekin batera dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera egin duela egiaztatzen duen lizitatzailleen proposamena onargarria izango da, betiere eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehen egin badu eskaera. Hori hala izan dela egiaztatzeko, erregistroaren hartu-agiria aurkeztu beharko du, baita nahitaezko dokumentazioa aurkeztu duela eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez duela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena ere.

## 2. GUTUNAZALA: MODU AUTOMATIKOAN KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK.

- A3) apartatuan adierazitako dokumentazioa sartu behar da.

### **B3) PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATUAN AURKEZTEKOA (SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO LEGEAREN 159.6 ART.)**

#### **GUTUNAZAL/FITXATEGI ELEKTRONIKO BAT**, dokumentu hauekin:

##### 1. GUTUNAZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA PROPOSAMENA:

- A1) eta A3) apartatuetan adierazitako dokumentazioa sartu behar da, eta, hala badagokio, baita Ezaugarrien Taularen H) letran ezarritako dokumentazio tekniko edo osagarria ere.
- Eskaintzak aurkezteko azken egunean Sektore Publikoko Lizitatzailleak eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo dagokion autonomia-erkidegoko erregistro ofizialean inskribatu izanaren ziurtagiria, Ezaugarrien Taularen H.1) apartatuan beste zerbaitez ezarri ezean. **Ziurtagiri horrekin batera, ziurtagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena erantsi behar da.** Ondoren horietarako, nahitaezko dokumentazioarekin batera dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera egin duela egiaztatzen duen lizitatzaillearen proposamena onargarria izango da, betiere eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehen egin badu eskaera. Hori hala izan dela egiaztatzeko, erregistroaren hartu-agiria aurkeztu beharko du, baita nahitaezko dokumentazioa aurkeztu duela eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez duela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena ere.

## **16. KONFIDENTZIALTASUNA**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 133. artikuluan jasotzen denez, enpresa lizitatzailleak, hala egokitzen bada, adierazpen osagarri arrazoitu baten bidez adierazi beharko dute aurkeztutako zein dokumentazio administratibo eta tekniko eta datu jo behar diren, beren ustez, konfidentzialtzat. Inguruabar hori, gainera, argi eta garbi jaso behar da halakotzat jotako dokumentuan bertan (gaininprimatuta, ertzean edo bestelako edozein modutan). Enpresa lizitatzailleak aurkeztutako dokumentu eta datuak konfidentzialtzat jo ahalko dira, sekretu tekniko edo komertzialak badira, bai eta eskaintzen alderdi konfidentzialak eta lizitazio-prozedura honetan edo gerokoetan lehia faltsutzeko erabil daitekeen bestelako edozein informazio ere. Kontratazio-organoaren eta haren mendeko zerbitzuen konfidentzialtasun-betebeharra ezingo da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora, ezta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zuzenean nahiz zeharka sor ditzakeen txostenen eta dokumentuen eduki osora ere. Hedapen murriztua duten dokumentuetara bakarrik hedatu ahalko da, eta inola ere ez publikoki irisgarriak diren dokumentuetara.

Adierazpena ONDO ARRAZOITUTA aurkeztu ez bada, dokumentu edo datu bat bera ere konfidentziala ez dela balioetsiko da.

## **17. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK.**

Adjudikazioduna hautatzeko, Ezaugarrien Taularen K.1) apartatuan adierazitako irizpideak hartuko dira aintzat.



Bi lizitatzailerik edo gehiagok guztizko puntuazioan berdintzen badute, Ezaugarrien Taularen K.2) apartatuan adierazi moduan ebatziko da berdinketa.

## **18. KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA.-**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren indarreko estatutuen arabera eratuko da kontratazio-mahaia edo, bestela, adituen batzordea, Ezaugarrien Taularen J) apartatuan adierazitako pertsonak osatuta. Prozedura ireki super sinplifikatua, ez da mahairik egongo, Ezaugarrien Taulan berariaz aurreikusi ezean.

## **19. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ADJUDIKAZIOA PROPOSATZEA**

1) Kontratazio-mahaiak 1. gutunazaleko dokumentazioa kalifikatuko du. Zuzentzeko moduko akatsik badago, lizitatzailerik hiru egun emango zaizkie konpon ditzaten.

2) Gero, irizpide kualitatiboak buruzko dokumentazioa duen gutunazalak irekiko ditu, halakorik egonez gero, eta proposamenak barne-mailan aztertu.

3) Irizpide kualitatiboak baloratu ondoren edo, halakorik egon ezean, 1. gutunazala ireki ondoren, formulak aplikatuta kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentuak dauzkan gutunazala irekiko du mahaiak, jendaurrean.

Gutunazal hori beti irekiko da jendaurrean, lizitazioan bitarteko elektronikoak erabiltzeko aukera dagoenean izan ezik.

4) Baldintza bereziki baxuetan formulatzeagatik itxuraz behintzat bideraezinak diren eskaintzen kasuan, bat etorrita Ezaugarrien Taularen K.3) apartatuan ezarritakoarekin, errekerimendua egingo zaio ausarkeriaz jokatu duen lizitatzailerari, eta prezioen edo kostuen prezio baxua edo eskaintza anormaltzat jotzea eragin duen edozein parametro modu arrazoitu eta xehean justifikatu eta banakatzeko epe nahikoa emango zaio. Horretarako, ondorio horietarako egokiak diren informazioa eta dokumentuak aurkeztu beharko ditu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 149. artikulua arabera.

5) Mahaiak edo, bestela, kontratazio-organoak, goitik beheranzko ordenan, aurkeztu diren proposamenak sailkatuko ditu, kontratazio-organoari proposamen bat egiteko, baldin eta sailkapena kontratazio-mahaiak egin badu.

6) Prozedura super sinplifikatuetan, lizitazio-plataforma elektronikoaren bidez bermatuko da proposamenak ez direla irekiko proposamenok aurkezteko epea amaitu arte; beraz, proposamenak ez dira jendaurrean irekiko, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 326.1 artikuluan aurreikusitako aukerarekin bat, ez da kontratazio-mahaia eratuko.

Proposamenak lizitazio-plataforma elektronikoaren bidez irekiko dira, Ur Partzuergoaren Kontratazio Zuzendariordearen bulegoetan.

## **20. DOKUMENTAZIO-ERREKERIMENDUA, BERMEA ETA ADJUDIKAZIOA.-**

### **1) Dokumentazio-errekerimendua eta bermea.**



Kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartzen duenean, egokitzen diren zerbitzuek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerak errekerituko dute, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita baliodun hamar eguneko epean egin ditzan honako hauek (prozedura ireki sinplifikatua edo super sinplifikatua bada, zazpi eguneko epean):

1) Lizitatzaileraren eta lizitatzailerak erabili ahalko dituen gaitasunak dauzkaten enpresen dokumentazio hau aurkeztea, aurretik egin ez badu (kontratazio-agiri europar bakarraren bidez, dokumentazioa bazuela adierazi zuen):

a) Enpresaburuaren nortasuna egiaztatzen dutenak, honela:

a.1.- Pertsona fisikoa bada, nortasun-agiri nazionala, eta, pertsona juridikoa bada, sozietatearen eratze-eskritura edo, hala badagokio, sozietatea aldatzeko eskritura, Merkataritza Erregistroan inskribatutakoa, legedi espezifiko aplikagarriaren arabera betekizun hau eskatu ahal bada. Hala izan ezean, eratze-eskritura nahiz -agiria, estatutuak edo sortze-akta aurkeztuko ditu jarduteko gaitasuna egiaztatze aldera; agiri horretan, jardura erregulatzen duten arauak jaso beharko dira, eta, hala badagokio, agiriak egokitzen den erregistro ofizialean inskribatuta egon beharko du.

a.2.- Ordezkaritza-ahalak, behar bezala askietsiak.

Espainiakoak izan gabe **Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalak** diren enpresaburuaren jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, dagokion estatuko legediaren arabera egokitzen den erregistroko inskripzioa aurkeztuko da, edo, bestela, zinpeko adierazpen bat edo ziurtagiri bat, arauz ezarri moduan, Batasuneko xedapen aplikagarrien arabera.

Espainiakoak eta **Europar Batasunekoak ez diren estatu**etako enpresaburuaren jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, dagokion estatuko Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorraren txostena aurkeztuko da, edo, bestela, enpresaren helbideari dagokion bulego kontsularrena. Obra-kontratuak egiteko, gainera, enpresa horiek sukurtsala izan behar dute Espainian, operazioak egiteko ahalduak edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon.

Hainbat enpresak aldi baterako enpresa-elkarte batean sartuta jotzen badute lizitaziora, ABEEaren eraketa formalaren eskritura aurkeztu beharko dute. Halaber, enpresa-batasuneko ordezkari edo ahalduak bakarrik izendatu beharko dute, kontratua suntsiarazi arte kontratuaren ondoriozko eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa izango duena; hala ere, enpresek ahalmen mankomunatuak eman ahalko dituzte, zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako.

b) Egokitzen den sailkapena daukana, hala badagokio, edo agiri honetan eta Ezaugarrien Taularen F) eta G) apartatuetan eskatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko betekizunak betetzen dituenak.

Kaudimena egiaztatze aldera beste enpresa batzuetara jo badu, kontratua betearazteko baliabide horiek benetan erabili edo atxiki ahalko dituela egiaztatzeko agiri bat aurkeztu beharko du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 76.2 artikuluaaren arabera.



**Dokumentuak originalak edo kopiak izan ahalko dira, benetakoak edo arloan indarrean den legediaren arabera konpultsatuak, eta gaztelaniaz idatzita egon beharko dute, edo itzulpen ofiziala izan.**

**Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Ofizialean inskribatuta egotearen ziurtagiria aurkeztuta, ziurtagirian jasotzen denaren arabera eta kontrako frogarik egon ezean, enpresaburuaren gaitasuna egiaztatetik salbuetsiko da lizitatzaillea, nortasunari eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide- edo enpresa-gaikuntzari, kaudimen ekonomiko eta finantzarioari eta kaudimen tekniko edo profesionalari, sailkapenari eta inskribatutako gainerako alderdiei dagokienez, baita kontratatzeko debekurik daukan ala ez egiaztatzeari dagokionez ere (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 96. art.).**

Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak hautematen badira, horiek zuzendu edo konpontzeko eskatuko zaio interesdunari, gehienez ere hiru (3) eguneko epea emanda.

2) Alderdi hauek justifikatzeko dokumentazioa aurkeztea:

a) Estatuko Ogasunari, Bizkaiko Foru Aldundiari –espezifikoa administrazioarekin kontratatzeko– eta Gizarte Segurantzari dagozkien zerga-betebeharrak egunean dituela.

b) Hala badagokio, kontratua betearazteko hitzemandako baliabideak –kontratazio-organoak agiri-baldintzen arabera eskatzen dizkionak– benetan erabili edo atxiki ahalko dituela.

c) Ezaugarrien Taularen E) apartatuan xedatutakoaren arabera egokitu daitekeen bermea eratu duela.

Behin betiko bermearen zenbatekoa adjudikazio-zenbatekoaren % 5 izango da, BEZa kenduta, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 102.7 artikulua aipatzen dituen behin-behineko preziodun kontratuen kasuan, finkatutako gehieneko prezioari erreferentzia eginez kalkulatu da ehunekoa (BEZa kenduta). Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 107. artikuluan jasotzen den moduan eratuko da behin betiko bermea, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Diruzaintzan gordeko da. Behin betiko bermea eratzetik salbuetsiko dira Estatutuko legeetan edo delako autonomia-erkidegoko xedapenetan salbuespen hori aitortuta duten entitateak (autonomia-erkidegoko xedapenak dagokion eskumen-eremura mugatuta daude). Kontratua aldatzen bada eta, horren ondorioz, kontratuaren balioa aldatzen bada, 15 egun naturaleko epean doituko da bermea, adjudikaziodunari kontratua aldatzeko ebazpena jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Ezaugarrien Taularen E) apartatuan hala agertzen bada eta nahikoa arrazoitzen bada, berme osagarri bat eratu ahalko da, behin betiko bermearen zenbatekoari gaineratuta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 107.2 artikuluko mugekin.

**Adjudikazioduna izateko proposatu den izangaia eskatu dioten dokumentazioa ezarritako epean aurkezten ez badu, puntuazioaren araberrako hurrengo izangaia proposatuko da adjudikazioduna izateko, eta dagokion epea emango zaio**

**klausula honetan jasotzen diren baldintzetan aurkez dezan dokumentazioa, eta bermea eratu (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 150.2 art.).**

Lizitatzailleak kontratatzeke debekua izango du, bat etorrita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71.1.e) artikuluan jasotzen denarekin, gaitasunari, ordezkaritzari eta kaudimenari buruzko erantzukizunpeko adierazpenetan informazioa faltatu badu.

Azpiatal honetan ezarritakoa epean betetzen ez duen lizitatzailleak, tartean dolua, erruduntasuna edo zabarkeria badira, ezingo du kontratua sinatu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71.2.a) artikulua araberak.

## **2) Adjudikazioa**

Eskatutako dokumentazio guztia jasotakoan, kontratazio-organoak adjudikazio-ebazpena emango du, ondo arrazoituta, eta izangaiei edo lizitatzaillei jakinaraziko die, kontratatzailearen profilean adjudikazioaren iragarkia argitaratzeaz batera.

## **21. KONTRATUA FORMALIZATZEA.-**

**1)** Kontratua, adjudikatu eta gero, idatziz formalizatu beharko da, nahitaez, hiru aletan sinatuko den dokumentu administratibo batean, egintza-batasunean. Hala ere, kontratistak hala eskatzen badu, kontratua eskritura publikoan formalizatuko da, eta hark ordainduko ditu horren ondoriozko gastuak.

**A)** Ohiko izapideetan, lizitatzailleek eta izangaiek adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta baliodun 15 eguneko gehieneko epearen barruan.

Prozedura hori erregulazio harmonizatuaren mende badago edo errekurtsore bereziaren mende jarri ahal bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 153.3 artikuluaekin bat, kontratua ezingo da formalizatu harik eta adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaillei eta izangaiei bidali eta baliodun 15 egun igarotzen diren arte. Epe hori igarotakoan, errekerimendua egingo zaio kontratistari, bost egunen buruan formaliza dezan kontratua, baldin eta kontratua etetea eragin duen errekurtsorik jarri ez bada edo, kontratua eten arren, errekurtsora ebazteko organo eskudunak etenaldia altxatu badu, bat etorrita agiri honen laugarren klausularekin.

**B)** Premiazko izapideetan, lizitatzailleek eta izangaiek adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta zazpi eguneko epearen barruan formalizatuko da kontratua. Prozedura erregulazio harmonizatuaren mende badago edo errekurtsore bereziaren mende jarri ahal bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 153.3 artikuluaekin bat, kontratua ezingo da formalizatu harik eta adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaillei eta izangaiei bidali eta baliodun 15 egun igarotzen diren arte. Epe hori igarotakoan, errekerimendua egingo zaio kontratistari, baliodun hiru eguneko epean formaliza dezan kontratua.



- C)** Prozedura ireki super sinplifikatua, Ezaugarrien Taulan aurkakoa adierazi ezean, ez da kontratua formalizatu beharko. Kontratatistak adjudikazio-ebazpena onartzeko sinadura emanez formalizatu ahalko da kontratua.

**2)** Adjudikaziodunari egoztekoak zaizkion arrazoiak tarteko kontratua ez bada formalizatu aipatutako epearen barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa barne, zigor moduan; zenbateko hori, lehenbizi, behin betiko bermearekin ordainduko da, baldin eta halakorik eratu bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71.2.b) artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzailerari adjudikatuko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 150.2 artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko du hark aurrez, eta aurreko apartatua ezarritako epeak izango dira aplikatzekoak.

Kontratua ez formalizatzea administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio kontratatistari.

- 3)** Kontratua formalizatzeak berori perfektzionatzen du, eta, hortaz, formalizatu ez bada, ezingo da kontratua betearazten hasi.

- 4)** Kontratua, formalizatzen denean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da, adjudikazioaren iragarkiko datu berberekin.

Kontratua erregulazio harmonizatuaren mende badago, EBAOn ere argitaratuko da.

### **III. KAPITULUA: OBRA-KONTRATUAREN XEDAPEN ZEHATZAK**

#### **22. KONTRATUAREN ARDURADUNA**

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 62. artikuluan jasotzen denaren arabera, Ezaugarrien Taularen A.3) apartatua identifikatuko da kontratuaren arduraduna. Hura arduratuko da kontratua etengabe eta zuzenean koordinatu, gainbegiratu eta kontrolatzeaz, baita jarraipena egiteaz eta itundutako prestazioa ondo gauzatuko dela ziurtatzeko jarraibideak emateaz ere.

Obra bat denez, zuzendaritza fakultatiboa izango da kontratuaren arduraduna.

Ondoren horietarako eta kontratua betearazi bitartean, kontratuaren arduradunak obrak ikuskatu ahalko ditu eraikitzen ari direla, eta, behin eraikitakoan, higiezina ikuskatu ahalko du, behar beste aldez; halaber, lana ondo kontrolatzeko egokitzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko du. Helburu horrekin, kontratuaren arduraduna eta bere laguntzaileak aske sartu ahalko dira kontratuaren xede diren tokietara, obrako buruak lagunduta. Kontratatistak, kostu gehigarririk gabe, laguntza profesionala emango dio administrazioari azalpen- edo informazio-bileretan, hots, administrazioak kontratatutako duen prestazioa aprobetxatzeko beharrezkotzat jotzen dituen bileretan.

Kontratuaren arduradunak, era berean, azpikontratazioaren liburua eskuratu ahalko du, bat etorrita Eraikuntzaren Sektorean Azpikontratazioa arautzen duen urriaren 18ko 32/2006 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontratuaren arduradunak kontratua betearazi bitartean eskatzen dizkion dokumentazio eta zehaztapen guztiak eman beharko ditu kontratatistak. Kontratatistak edo bere mendeko pertsonak kontratua ondo abiatzea galarazten duten ekintzak edo



omisioak egiten badituzte, itundutakoa bide onean jartzeko neurri zehatzak hartzea eskatu ahalko du kontratuaren arduradunak.

Hala badagokio, kontratuaren arduradunak laginak irekitzea agindu ahalko du, ezkutuko eraikuntza-akatsak daudela edo kalitate okerragoko materialak erabili direla susmatzen badu. Akats horiek daudela egiaztatzen bada, kontratistaren kargura ordainduko dira azterketaren eta konponketaren ondoriozko gastuak. Bestela, laginak egin eta konpontzeari dagozkion kalte-ordainen ziurtagiria idatziko du kontratuaren arduradunak, proiektuaren prezio unitarioetan baloratuta.

Halaber, materialak eta obra-unitateak probatu eta aztertzea eta kasuan kasu egokitzen diren txosten espezifikoak idaztea agindu ahalko du, eta kontratistak ordaindu beharko ditu operazio horien ondoriozko gastuak.

Kontratistak kontratuaren arduradunari lagundu beharko dio, hari egotzitako betebeharrak normal betetzeko.

Kontratuaren arduradunak, obrak zuzentzeko eta ondo egiten ari direla kontrolatu, egiaztatu eta zaintzeko misioan, beharrezko ardura guztiak hartuko ditu bere gain, kontratistari dagokionez; zehazki, hauek:

- Zuzenean edo mendeko langileen bidez kontratuko baldintzak bete ditzan eskatzea kontratistari.
- Obrak onetsitako proiektuaren arabera edo behar bezala onetsitako aldaketen arabera egin daitezen bermatzea eta lan-programa bete dadin bermatzea.
- Preskripzioen agiriak bere erabakimenaren mende uzten dituen baldintza teknikoak zehaztea.
- Planoen interpretazioaren, materialen baldintzen eta obra-unitateen exekuzioaren inguruan sortzen diren zalantza tekniko guztiak argitzea, betiere kontratuko baldintzak aldatu gabe.
- Obretan kontratua normal betetzea galarazten duten edo kontratua aldatzea eragin dezaketen gertakariak edo arazoak aztertzea eta, hala badagokio, proposamenak izapidetzea.
- Obrak egiteko, obren eraginpeko ondasunak okupatzeko eta obrekin lotutako zerbitzuek eta zortasunek planteatutako arazoak konpontzeko baimenak lortzeko egokitzen diren jarduketak proposatzea (baimenak erakundeek nahiz partikularrek emango dituzte).
- Premiazko kasuetan edo kasu larrietan, aribideko operazio edo lan jakin batzuen zuzendaritza bere gain eta erantzukizunpean hartzea; horretarako, kontratistak bere esku jarri beharko ditu behar diren langileak eta obrako materiala.
- Kontratistari egin dituen obren egiaztagiria ematea, bat etorrita kontratuko dokumentuetan xedatzen denarekin, eta egokitzen diren obra-ziurtagiriak ematea.
- Obra-harreran parte hartzea eta obren amaierako ziurtagiria eta likidazioa idaztea, indarreko legediaren arabera.

### **23. ZUINKETA ETA OBREN HASIERA EGIAZTATZEKO AKTA.**

Kontratua formalizatu eta hilabeteko gehieneko epean, obren zuinketa egiaztatuko da, kontratistaren eta obrako zuzendariaren aurrean, eta egiaztapenaren ale bat bidaliko zaio kontratuaren kudeaketa-unitateari.

Akta sinatu eta hurrengo egunean hasiko dira lanak, beranduenez.

Ezaugarrien Taularen D.1) apartatuan adieraziko da obrak egiteko guztizko gehieneko epea. Ezaugarrien Taularen D.2) apartatuak jasotzen badu, jomuga edo epe partzialak ere egongo dira.

Dena dela, kontratuaren arduradunak ahalmena izango du hasiera-eguna modu arrazoituan zehazteko, eta egun horretan hasiko da zenbatzen obra egiteko epea.



## **24. EGIKARITZE-BALDINTZA BEREZIAK.**

Kontratatistak nahiz azpikontratatistek halaberrez beteko dituzte Ezaugarrien Taularen L) apartatuan jasotzen diren egikaritze-baldintza bereziak, eta, nolana ere, hauek:

- Adjudikaziodunak kontratuan parte hartzen duten azpikontratatisten edo hornitzaileen zerrenda xehakatu igorriko dio ente publiko kontratatzaileari hark hala eskatzen duenean, azpikontratatisten edo hornitzaileen parte-hartzea burutzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo horniduraren baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute.
- Ente publiko kontratatzaileak eskatuta, azpikontratatistei edo hornitzaileei ordainketak egin zaizkiela egiaztatzeko egiaztageria aurkeztu beharko dute, prestazioa ordainketa-epeen barruan amaitutakoan.

Epeak betetzen ez badira, zigorrek ezartzeko espedientea irekiko da: proportzionaltasunaren arabera, kontratuaren prezioaren % 10etik % 50era bitarteko zigorra ezarriko da, eta, are, kontratua suntsiarazi ahalko da.

## **25. OBREN GARAPENA. BETEBEHAR ZEHATZAK.**

1) Kontratuaren oinarri diren klausula hauen, Ezaugarrien Taularen, preskripzio teknikoaren agiriaren eta proiektuaren arabera betearaziko da kontratua, bat etorrita kontratuaren arduradunak idatziz emandako jarraibideekin, eta indarreko legediak Partzuergoari ematen dizkion ahalmenen mende geratuko da kontratista, kontratua interpretatu, aldatu eta suntsiarazteari dagokionez. Hala bada idazten diren aginduak betetzen ez badira, agiri honetan ezarritako zigorrek ezarriko dira.

2) Kontratista arduratuko da kontratu honen xede diren obrak egin eta zaintzeaz, baita obretan nabaritu daitezkeen faltez ere, eta obrako zuzendaritzak eraikuntza-fasean obra bera eta erabilitako materialak aztertu eta aitortu izanak ez du erantzukizunetik salbuetsiko, ezta obraren hainbat zati neurketa edo ziurtapen partzialetan sartu izanak ere. Halaber, kontratista izango da garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazioen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua egikaritzean izandako ekintzak, omisioak, errakuntzak, metodo desagokiak zein amaiera okerrak direla-eta Partzuergoari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere. Era berean, adjudikaziodunak erantzungo du bere zerbitzurako langileek zabarkeriaz edo doluz jarduteagatik altzarietan, materialetan eta instalazioetan eragindako kalteen aurrean, eta bere kargura konponduko ditu, edo egokitzen den kalte-ordaina emango. Adjudikaziodunak arrisku eta menturara jardun beharko du kontratua egikaritzean, eta hark ordainduko ditu kontratua betearaztean izan daitezkeen galerak, matxurak edo kalteak; hala ere, interesdunak aseguruia eduki dezake.

3) Kontratua betearaztean kontratua baldintza normaletan gauzatzea galarazten duten inguruabarrak sortzen badira (langileek greba egitea edo haien bajak edo oporrak ez ordezkatzeko edo kontratua ondo betearazteko galarazten duen eta interes publikoari eragiten dion bestelako edozein inguruabar sortzea), kontratuaren kudeaketa-unitateak, agiri honetan edo preskripzio teknikoaren agirian jasotzen diren neurriak gorabehera, ahalmena izango du gabezia horiek egokien irizten dion moduan konpontzeko, adjudikaziodunari abisatu ondoren.



4) Kontratistak edo bere mendeko pertsonak kontratua ondo abiatzea galarazten duten ekintzak edo omisioak egiten badituzte, kontratuaren kudeaketa-unitateak itundutakoa bide onean jartzeko neurri zehatzak eskatu ahalko ditu.

5) Kontratua betearazteko behar diren giza baliabideak edo baliabide materialak atxikitze konpromisoak betetzen ez badira, baldin eta Ezaugarrien Taularen L) apartatuan berariaz hala adierazten bada, kontratua suntsiarazi ahalko da, edo, hala badagokio, agiri honetan zehaztutako zigorrak ezarriko dira. Kontratistak ezingo ditu ordezkatu ez lanetara atxikitako langileak, ez azpikontratistak, kontratuaren arduradunaren berariazko baimenik izan ezean.

6) Kontratistak sekretupean eduki behar ditu kontratuaren xedearekin zerikusia daukaten eta kontratuaren harira ezagutzen dituen datuak eta aurrekariak.

7) Obra ez badator hertsiki bat proiektuko planoekin eta gainerako dokumentuekin, erabilitako materialak eskatutako kalitatekoak ez badira, eraikuntzan akatsak hautematen badira edo egindako obran ezkutuko akatsak daudela uste izateko arrazoi oinarrituak badaude, kontratistak obra eraitsi eta berregin beharko du, obrako zuzendaria pozik geratu arte. Kontratistaren kargura ordainduko dira lan horien gastuak, salbu eta obrako zuzendaritzak ezkutuko akatsak egon daitezkeela uste izateagatik egin badira baina akatsak egiaztatu ezin badira.

Baimendu gabeko lantzat joko da obrako zuzendaritzak onartu baino lehen eta proiektuaren arabera lerrokadurak eta mailak adierazi baino lehen egindako lan oro, baita obrako zuzendaritzaren baimenik gabe egindako edozein lan berezi ere. Baimendu gabeko lanak ez dira ordainduko, eta jabeak eraitsi ahalko ditu, klausula honetan ezarritako baldintzetan. Adjudikaziodunak ez du eskubiderik izango ordainsaririk jasotzeko, baztertutako lana egiteagatik edo lan hori eraisteagatik. Horren ondoren proiektuaren arabera edo obrako zuzendaritzaren agindupean egiten diren lan egokiak itundutako prezioan ordainduko dira. Eraispenei eta berreraikuntzek ez dute obraren plana asaldatuko, guztizko epeari dagokionez.

Obrako zuzendaritzak uste badu obra-unitate akastunak onargarriak direla, unitateok onartzea proposa diezaioke administrazio kontratatzaileari, prezioak jaitzita.

8) Kontratistak, obra egiteaz gainera, obra zaindu behar du, behin betiko obra-harrera egin arte. Obraren faltak hautematen badira, kontratista izango da erantzulea, baldin eta falta horiek obra-unitateak gaizki zaintzeagatik gertatu badira, eraiki eta berehala edo kontratuaren indarraldiko edozein unetan, nahiz eta zuzendaritzak obra-unitate horiek aztertu eta ikus-onetsi izan.

9) Kontratistak behar diren seinaleak jarriko ditu, adierazteko zein diren obrarako sarrera, ibilgailuak lanen eremuan ibiltzeko bideak eta ibilgailuengatik arriskutsuak izan daitezkeen tokiak, lanen eremuan nahiz eremu horren mugetan eta inguruetan. Kontratistak bete egingo ditu zuzendaritzatik idatziz jasotzen dituen aginduak, seinale osagarriak jartzei edo jarritakoak aldatzei dagokionez. Obraren klausula partikularren agirian ezarri moduan ordainduko dira seinaleztapenaren gastuak; bestela, kontratistaren kargura.

10) Baimenak, lizentziak, dokumentuak eta abar lortzearen ondoriozko gastuak ordaintzea.

11) Kontratuaren harira edo kontratua betetzearen harira sortutako zergak, eskubideak, tasak, konpentsazioak, prestazio publikoak, bestelako ondare-prestazio

publikoak eta indarreko xedapenen arabera aplikatzekoak diren gainerako kargak eta ordainarazpenak ordaintzea.

12) Preskripzio tekniko partikularren agirian kontratuaren xedea gauzatze aldera sartuta dagoen bestelako edozein gastu ordaintzea. Besteak beste, kontratua betearazteak sortutako edozein gastu: langileen kostu osoa, kontratua betetzeko behar diren materialen, elementuen eta tresnen kostua, zerbitzua emateko behar den makineriaren kostua, makineria eta gainerako bitarteko materialak zaintzeko egin behar diren gastuak, langileen jantzien gastuak, finantzaketa-gastuak, aseguruak, garraioen gastuak, joan-etorrien gastuak, ordainsarien gastuak eta abar, segurtasuna eta osasuna koordinatzekoak barne hartuta.

13) Kontratistak, inolako kostu gehigarririk gabe, bere adituen laguntza profesionala emango dio administrazioari, izan aurkezpenetarako, izan azalpen- edo informazio-bileretarako, izan obren inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

14) Era berean, adjudikaziodunaren kargura ordainduko dira lantokiko ondasunetan edo herritarrengan sortutako kalteak, eta arretaz jokatu ez izana falta larritzat joko da.

15) Materialak eta obra-unitateak probatu eta aztertzea:

Kontratistak, obra-kontratua adjudikatu ondoren baina obrak hasi aurretik, proiektuak edo preskripzio tekniko partikularren agiriak hala adierazten badu, proiektuan sartuta dauden obra-unitate guztien kalitatea kontrolatzeko plan bat egingo du, indarreko araudian eta gomendioetan oinarrituta. Dokumentu horrek, obrako zuzendaritzak onesten badu, obretan egin behar diren proben eredua ezarriko du.

Lizitatzailerak bakoitzak, eskaintza ekonomikoa egiteko orduan, kontuan hartu beharko ditu alderdi horiek.

Obraren kalitatearen kontrolean, honako hauek sartuko dira:  
a) Administrazioak aldarrikatzen dituen, nahitaez bete behar diren eta material, elementu edo obra-unitateen baldintzei nahiz homologazioei buruzkoak diren arau edo jarraibideen mendeko materialak, elementuak edo obra-unitateak.

Baldintza horiek egiaztatze aldera nahitaez egin behar diren entseguen, proben, analisisen edo kontrolen kostuak proiektuan jasotako prezioetan sartuta egongo dira, bat etorrita onetsitako proiektuan ageri den kalitate-kontrolako programan ondorio horietarako eta, hala badagokio, banakatuta jasotzen den aurrekontuarekin.

b) Arau batek ere ezarri ez dituen baina Proiektuaren Kalitatea Kontrolatzeko Plan onetsian sartuta dauden edo zuzendaritza fakultatiboak nahiz kontratuaren arduradunak egokitzen jo dituen kontrol eta analisiak, une bakoitzean indarrean dagoen obra materialki gauzatzeko aurrekontuaren % 1eko gehieneko mugaraino edo, bestela, enpresa eraikitzaileak lizitazioan hobekuntza gisa eskainitako ehunekoraino. Kontrol horietan, honako kontzeptu hauek sartzen dira:

b.1.) Zuzendaritza fakultatiboak edo lanaren koordinatzaileak egokitzen jotzen dituen eta derrigorrezkoak ez diren entseguak.

b.2.) Zimenduen, egituren, igeltserotza-lanen eta akaberen kalitatearen kontrola.

b.3.) Instalazioen kalitatearen kontrola.

b.4.) Instalazioen amaierako probak eta fatxaden zein estalkien hermetikotasuna egiaztatzeak.

b.5.) Segurtasun eta Osasun Planaren kalitatea egiaztatzeak eta jarraipena egiteko kontrola.

Lehen aipatutako jarduketan kalitatea kontrolatzeko, proiektatutako obraren exekuzioari eragin diezaioketen gorabeherak jasoko dira hileko txostenetan.

Hileko txosten horri, sortutako dokumentazio guztiaren kopia erantsiko zaio.

Kontratistak edozein inguruabar dela-eta egiten eta ordaintzen ez baditu,



administrazioak egin ahalko ditu aurreko apartatuetan ezarritako entseguak, eta zenbatekoa hileko ziurtagirietatik kendu.

Edonola ere, obren enpresa kontratistak gaizki egindako obra-unitateei buruzko informazioa ateratzeko entseguen edo obra-unitate horien kalitatea egiaztatzeko entseguen gastu guztiak enpresa horrexek ordainduko ditu, zenbatekoa edozein izanda ere.

Edozein inguruabar dela-eta obraren kontratistak aurreko paragrafoan aipatutako entseguak egiten eta ordaintzen ez baditu, zuzendaritza fakultatiboak, administrazioaren aurretiko baimena badu, entseguok egitea agindu ahalko du, eta hileko obra-ziurtagirietatik kenduko da zenbatekoa.

## **26. LANEN PROGRAMA.**

Obra adjudikatu eta gero, lanak egiteko egutegi bat aurkeztuko du kontratistak, hasiera batean eta gerora adierazitako hasiera-egunetara eta exekuzio-epeetara egokituta; Partzuergoak, halere, kontratuaren arduradunaren bidez, aldaketak sartzea edo preskripzio jakin batzuk betetzea agindu ahalko du, kontratuko klausulei kontra egin gabe.

Kontratistak honako datu hauek sartu beharko ditu kronogramara:

- a) Proiektua osatzen duten unitateak obra-zatietan edo motetan banatzeko antolamendua eta neurriak jasotzen dituen eranskina.
- b) Behar diren baliabideen (langileak, instalazioak, ekipoa eta materialak) zehaztapena, errendimenduak adierazita.
- c) Askotariko obrak edo prestaketa-lanak (ekipoa eta instalazioak) egiteko epeen eta obra-zatiak edo -unitateak egiteko epeen balioespena, egunetan.
- d) Programatutako obraren hileko balorazioa eta balorazio metatua, askotariko obrak edo prestaketa-lanak (ekipoa eta instalazioak) eta obra-zatiak edo -unitateak aintzat hartuta.

Aldi berean, lanak egin bitartean, hileko plana berraztertzea eskatuko da, sortzen doazen doikuntzak egiteko.

## **27. KONTRATUA ALDATZEA**

Administrazio-kontratuak interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahalko dira, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 205-207. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta moduan.

Kontratua aldatu ahalko da, Ezaugarrien Taularen Ñ) apartatuan berariaz jasotzen bada.

Bestela, salbuespenez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 205. artikulua aplikatuta aldatu ahalko da kontratua.

Horrelakoetan, kontratazio-organoak hitzartutako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, betiere kontratuko prezioaren % 20 baino gehiago aldatzea ez badakar.

Aldaketaren eraginez obra-unitateak ezabatzen edo murrizten badira, kontratistak ez du batere kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

Aldaketa-prozedura garatzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 207. eta 242. artikuluetan ezarritako izapideak egingo dira.

Kontratazio-organoak behar bezala onesten ez dituen kontratu-aldaketek, bat etorrita agiri honetan aurreikusten denarekin, erantzukizuna sortuko diote kontratistari, eta baimenik gabe egindako aldaketak kobratzeko eskubidea galduko du.



## **28. EPEAK BETETZEA.-**

- 1) Kontratistak obrak egiteko finkatutako epe osoaren barruan egin behar ditu obrak, bai eta ondoz ondo gauzatzeko adierazitako epe partzialen barruan ere.
- 2) Adjudikaziodunak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik epe osoa betetzeko orduan atzeratu bada, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontratua suntsiaraztea edo eguneko zigorrak ezartzea (0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko) erabakiko du, nahieran.
- 3) Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera iristen diren bakoitzean eta kontratistak epe partzialak bete ez baditu edo epe partzialak ez betetzeak modu arrazoituan iradokitzen badu ezingo dela epe osoa bete, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiaraztea erabakitzeke edo kontratuarekin jarraitu eta beste zigor batzuk ezartzea erabakitzeke.
- 4) Zigorrak ezarri eta ordaintzeak ez du baztertzen Partzuergoak kalte-ordainak jasotzeko eskubidea izatea kontratistari egotz dakiokeen atzerapenaren harira sortutako kalte-galerengatik.

## **29. ZIGORRAK**

### **1.- Zigorrak ezartzea.**

Kontratistak agiri honetan edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean adierazitako baldintzaren bat edo betekizunen bat betetzen ez badu, Partzuergoak, aurretik arrazoituta, urraketa buruzko dokumentazioa emanda eta interesdunari bost egun naturaleko gutxieneko epean entzunaldia eskainita, hurrengo apartatuetan adierazten diren zigorrak ezarri ahalko ditu, zigorra ezartzeko kausaren arabera.

Jokaera kontratu-urraketa gisa tipifikatuta egon zein ez egon, Partzuergoak asebate ez diren prestazioen zenbatekoa kenduko du enpresarako ordainketatik, eta, kalteak edo galerak egon badira, egokitzen den kalte-ordaina eskatuko du.

### **2.- Falta zigorgarriak.**

Kontratuaren ondorenetarako, falta zigorgarritzat hartuko dira agiri honetan edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean zehazten diren eskakizunak hausten dituzten ekintzak edo omisioak (kontratistarenak).

Arau-haustea egon den ala ez zehazteko helburuz, kontuan hartuko da asebate ez den prestazioa zenbateraino garrantzitsua den, zabarkeriarik egon den ala ez, aurretik ere prestazioak asebate ez diren, gertakaria kontratua oro har hartuta garrantzitsua den ala ez... Beraz, zigorrak ezartzeko orduan, kontuan hartuko da gauzatutako prestazioen kalitatea, zigorra eragin duen urraketa motarekin proportzionala izan beharko baitu, kontratua oro har hartuta. Balorazio horretan modu justu eta proportzionalan ondorioztatzen bada arau-haustea egin dela, zigorrak ezartzeko prozedura hasiko da. Balorazioa esandako irizpideen arabera egin beharko da, hots, bidezketasuna eta proportzionaltasuna aintzat hartuta.

Kontratistak egindako faltak garrantziaren, proportzionaltasunaren eta nahitasunaren arabera sailkatuko dira (arinak, larriak edo oso larriak), irizpide hauekin bat:

**Falta arina:** Faltak arinak izango dira, kontratuaren funtzionamenduari eta eraginkortasunari kalte egin arren gaiztakeriaz egin ez badira, pertsonen, animalien eta



gauzei arriskurik eragin ez badiete, egindako lanen bizitza ekonomikoa murrizten ez badute, bideetako eta parkeetako erabiltzaileei eragozpenik eragin ez badiete eta abar. Besteak beste, honako hauek dira:

- Lanetan hasierako mekanika operatibo normala ez betetzea.
- Kontratuaren prestazioa hiru egunez baino gutxiagoz atzeratzea edo etetea eta betebeharrak betetzean zabarkeriaz jokatzeari edo deskuidua izatea.
- Oro har, garaiz ez iristea edo betebeharrak ez betetzea, zabarkeriaz jokatzeari edo aitzakiadun deskuidua izateagatik.
- Agiri honetan edo preskripzio teknikoan agirian ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea, agiri honetan larritasun-maila handiagoarekin kalifikatu ez bada.
- Auzokideei alferrikako eragozpenak sorraraztea.
- Lanak amaitutakoan sobera geratutako materialak berehala ez kentzea.

**Falta larria:** Falta larriak izango dira ikuskapenak edo eskatutako lanak edo prestazioak edo kontratuzko eskakizunak ondo ez betetzearen ondoriozkoak, egindako lanen bizitza ekonomikoari kalte eragiten badiote edo erabiltzaileei eragozpenak eta arriskuak eragin badizkiete edo kontratatutako lanen kontrolari edo ikuskapenari kalte larria eragin badiote.

- Kontratuaren prestazioa hiru egunez edo egun gehiagoz baina hamabost egunez baino gutxiagoz atzeratzea edo etetea, hainbat aldiz garaiz ez iristea eta etengabe zabarkeriaz jardutea edo deskuiduak izatea.
- Oro har, betebeharrak eta zereginak larriki urratzea eta urtebetean hiru falta arin egitea.
- Kontratuaren ondorioz ezagututako gaien inguruan diskrezioz ez aritzea.
- Produktu ezegokiak erabiltzearen ondorioz zentroko ondasunetan edo erabiltzaileengan eragindako kalteak ez konpontzea.
- Urte berean hiru urraketa arin egitea.
- Lanetan segurtasun- eta osasun-neurriak ez betetzea.
- Kontratutako lanen bat ez egitea.
- Giza baliabideak edo baliabide materialak falta izatea edo ez egotea.
- Preskripzio teknikoan agirian baimendu ez den publizitatea jartzea. Makinerian eta obrako etxoletan bakarrik jarri ahalko da kontratistaren publizitatea.
- Kontratatutako azpikontratistek ordaindu izanaren egiaztagiria ez aurkeztea obra-ziurtagiri bakoitzean, behartuta egonik.

**Oso falta larria:** Oso falta larritzat jotzen dira baldintza bereziak urratzearen ondoriozkoak edo kontratatutako gaiztakeriaz jardutearen ondoriozkoak.

Besteak beste, hauek:

- Kontratatutako zigorrek ezarritako zuzenbideko irizpideak ez betetzeagatik edo bere eskaintzan hartutako konpromisoren bat edo batzuk ez betetzeagatik.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari iruzur ekonomikoa egitea, errealitatearekin bat egiten ez duten ziurtagirien edo fakturen bidez edo edozein bitartekoren bidez, dolurik egon beharrik gabe.
- Kontratuaren prestazioan hamabost egunez edo egun gehiagoz atzeratzea edo etetea edo kontratua bazter uztea.
- Urtebetean hiru falta larri pilatu edo errepikatzea.
- Ageriko errendimendurik eza erakustea eta kontratua gaizki betetzea, kalitateari nahiz kopuruei dagokienez.
- Arrazoirik gabe kontratuaren berezko prestazioak edo kontratuaren arduradunak idatziz agindutako lanak egiteari uko egitea, betiere jokaera hori adjudikaziodunari edo haren arduradunei nahiz langileei zuzenean egotzi ahal bazaie.



- Delitutzat har daitekeen edozein jokaera; bereziki, derrigortzea eta instalazioetan lapurtzea.
  - Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak lagatzea, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren baimenik gabe.
  - Sekretu profesionala gordetzeko betebeharra ez betetzea.
  - Elementu edo instalazio bat narriatzen uztea, nahita.
  - Txostenetan informazio faltsua sartzea.
  - Eskaintako edo kontratuan jasotako egikaritze-epea betetzeko giza baliabide eta baliabide material nahikoak ez edukitzea edota kontratuaren arduradunak nahiz kudeaketa-unitateak eskatutako baliabideak ez edukitzea.
  - Kontratua bazter uztea.
  - Agiri honetan ingurumen-arloan ezarritako betebeharrak ez betetzea.
  - Azpikontratistari edo hornitzaileari ordaindu ez zaiola egiaztatu bada, ebazpen judicial edo arbitral irmoaren bidez. Kasu horretan, zigorra % 5erainokoa izan ahalko da, eta, ordaindu gabe jarraitu bitartean, hilero kendu ahalko da, harik eta multzoan hartuta prezioaren % 50eko mugara iritsi arte. Behin betiko bermeak erantzungo du arrazoi horrengatik ezarritako zigorren aurrean.
  - Edozein urraketa larri errepikatzea.
- Zigor horiei, Ezaugarrien Taularen M) apartatuan jasotzen direnak gehitu ahalko zaizkie.

### **3.- Zigorren zenbatekoa.**

- Atzerapena: Kontratua betetzen hastean atzeratutako egun bakoitzeko edo kontratua etendako egun bakoitzeko, agiri honen 28.2 artikuluko zigorra ezarriko da, Ezaugarrien Taularen M) apartatuan zigor desberdin bat ezarri ezean.
- Horrez gain, zigor hauek ezarriko dira:
- Falta arinak: Kontratua adjudikatzeko prezioaren % 1 eta 3 arteko zenbatekoarekin zigortuko da falta arin bakoitza.
  - Falta larriak: Kontratua adjudikatzeko prezioaren % 3,01 eta 5 arteko zenbatekoarekin zigortuko da falta larri bakoitza.
  - Oso falta larriak: Kontratua adjudikatzeko prezioaren % 5,01 eta 10 arteko zenbatekoarekin zigortuko da oso falta larri bakoitza.
- Honako hauek ezingo dira erabili betebeharrak ez betetzeko ezinbesteko kausa gisa edo kausa justifikatu gisa:
- a) Eguraldi txarra, berezia izan ez bada edo ondorio tamalgarririk izan ez badu.
  - b) Enpresa adjudikaziodunaren barruko lanuzteak.
  - c) Bere langileen edo beste batzuen oporrak edo laneko bajak.
- Adjudikaziodunak, baldintzaren bat betetzen ez badu, eragindako kaltea konpondu ahalko du; hala ere, egitateak sortu duen erantzukizuna eskatu ahalko zaio.
- Zigorren zenbatekoak eraginkorrak izateko, ordainketetatik kenduko dira edo, bestela, fidantzatik.
- Zigorrek ezartzeak ez du baztertzen arau-haustearen ondorioz administrazioari kalte-ordaina ordaintzeko aukera egotea.

## **30. OBRAK AMAITZEA.-HARRERA.**

Kontratuak suntsiarazi edo bete ondoren iraungitzen dira. Kontratu bat bete delako iraungitzen bada, obra-harrera, obren berme-epea eta likidazioa etorriko dira.



Suntsiarazita iraungitzen bada, berriz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 211. artikuluan ezartzen den alde biko espedienteak izapidetuko da.

**A) OBRA ORO HAR GARBITZEA ETA HONDAKINAK KENTZEA.**

Obra amaitutakoan, kontratistak oro har garbituko ditu obra bera eta haren ingurunea, adierazten den egunean garbiketa osagarriak egin beharrik gabe hartu eta martxan jarri ahal izateko moduan. Garbiketa horretan, soberako material guztiak eta obra egiten parte hartu duen edozein enpresak sortutako zikinkeria oro kenduko dira.

Kontratistak hamar egun naturaleko epean kenduko ditu obrako kartelak, obra-harreratik zenbatzen hasita, eta instalazio finko guztiak eta makineria guztia kendu. Epe hori igarotakoan, Partzuergoak, aurretik ohartarazi gabe, bere kabuz edo beste enpresa batekin kendu ahalko ditu elementuak, eta obra garbitu; horrelakoetan, kontratistari zenbateko hori kenduko dio, eta enpresak ezingo du eskatu materialek arrazoi horrengatik jasan ahal izan dituzten kalteengatik ordainik. Gainera, ordeko exekuzioengatik tasa aplikatuko da, dagokion araudiaren arabera.

Sortzen diren gastuak kontratistaren kargurakoak izango dira, eta obra-unitateetan jasanarazi direla ulertuko da.

**B) OBRA-HARRERA.**

1) Obrak amaitu eta hitzartutako prestazioak egin ondoren, obra-harrera egingo da, Ezaugarrien Taularen D.4) apartatuan ezarritako berme-epearekin, obra-harreratik zenbatzen hasita. Epe horretan, kontratistaren kargura ordainduko dira obra zaintzeko lan guztiak, eta kontratistak berehala konpondu beharko ditu hautemandako akats guztiak, bat etorrira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 243. artikuluan xedatzen denarekin.

Kontratistak harrera eskatuko du, eta alderdiei deituko die, hamabost egun lehenago gutxienez, obra-harrera egiteko. Administrazioak obrak amaitu eta gehienez ere 30 egun naturaleko epean egingo du egintza hori.

Obra-harrera egiteko, ezinbesteko baldintza hauek egongo dira:

- Obrak agiri honekin, preskripzio teknikoaren agiriarekin, obra-proiektuarekin eta proiektuan onetsitako aldatetekin bat etorriz egin izana. Preskripzio tekniko partikularren agirian hala jasotzen bada, modu independentean erabil daitezkeen kontratu-zatien harrera partzialak egin ahalko dira.
- Eraikuntzako eta urbanizazioko instalazio guzti-guztietan probak egin izana eta guztietan emaitza ona ateratzea. Kontratistak hornidurak eta energia aurreikusi eta jarri behar ditu probak egiteko.
- Kontratistak nahitaezko eta beharrezko dokumentazio guztia eman izana zuzendaritza fakultatiboari, bere edo zerbitzuak kontratatzeaz azpikontraten erantzukizunpekoa, buletin guztiak barne hartuta.

Instalazio bat amaitutzat joko da, baldin eta:

Martxan jarri bada.

Arazko probak egin badira eta emaitza ona izan bada.

Legeztatu bada.

Instalazioaren amaierako dokumentazioa entregatu bada. Bereziki, dokumentazio hau entregatu beharko da:

Obra guztien “as Built” planoen bilduma osoa (zuzendaritza fakultatiboak edo Partzuergoak hala eskatzen badu), paperean eta Autocad, Word eta Presto programekin bateragarria den formatuko informatikoan. PDF formatuan entregatuko da. Nolanahi ere, obraren garapenaren argazki-bilduma digital osoa entregatu beharko da, CDan (2 Mb-tik gorako irudiak); bada, aste bakoitzeko argazki orokorrak eta



egokitzen jotako argazki zehatzak jaso beharko dira CD horretan. Argazkilari profesional batek egingo du argazki bidezko jarraipena.

Instalatutako material guztiei buruzko dokumentazioa: fitxa teknikoak, hornitzaileak, katalogoak, eraikina erabiltzeko eta mantentze-lanak egiteko jarraibideak eta abar.

- Eraikina erabiltzeko eta mantentze-lanak egiteko jarraibideak.
- Salbuespenak eta gomendioak.
- Dokumentazioa bi aletan entregatuko da, paperean eta euskarri informatikoan (CD edo DVD).

2) Obrak amaitzen direnean, Partzuergoak izendatutako teknikari bat, obren zuzendaritzaz arduratutako teknikaria eta kontratista bilduko dira obra-harrerarako; azken hori, teknikari baten laguntzaz, berak egoki baderitzo.

Obrak hartu eta hiru hilabeteko epearen barruan, egindako obren azken ziurtagiria onetsi beharko du kontratazio-organoak, eta ordaindu egingo zaio kontratistari, kontratuaren likidazioaren kontura, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean aurreikusitako epean.

Hamabi milioi eurotik gorako balio zenbatetsia duten eta likidazio- eta neurketa-eragiketaz biziki korapilatsuak diren obren kasuan, baldintza-agiriei aurreikusi ahalko dute amaierako ziurtagiria onesteko aurreko paragrafoak ezartzen duen hiru hilabeteko epea luzatu ahal izatea; nolana ere, epe hori ez da sekula izango bost hilabetetik gorakoa.

Obrak egoera onean badaude eta emandako aginduen arabera egin badira, administrazio kontratatzaileak bere ordezkari izendatutako funtzionario teknikariak hartutakotzat joko ditu; harrera-akta egingo da, eta orduan hasiko da berme-epea.

Alabaina, obrak ez badaude hartzeko moduan, halaxe adieraziko da aktan. Orobat adieraziko dira obra-zuzendariak sumatutako akatsak, eta beharrezko diren jarraibideak ere zehaztuko dira, bai eta akatsak zuzentzeko epe bat ere. Aipatutako epea igarota kontratistak ez baditu oraindik zuzenketak egin, bi aukera izango dira orduan: beste epe bat eman (luza ezinezkoa) edo kontratua suntsiarazi.

Espedientean ondo egiaztatutako interes publikoko arrazoi bereziak direla-eta harrera-egintza formala egin gabe erabakitzen bada obrak okupatzea edo publikoki erabiltzea, administrazioak obrak hartu dituela balioetsiko da berme-aldiaren zenbaketaren ondorioetarako.

Horrelakoetan, obrak egiaztatzeko akta bat idatziko da, eta kontratuaren arduradunak, obren zuzendaritzak eta kontratistak sinatuko dute.

### **31. BERME-EPEA**

Berme-epea administrazio-klausula partikularren agirian ezarritako horixe izango da, obraren izaera eta zailtasunen arabera zehaztuta. Edonola ere, berme-epe hori ezingo da urtebetetik beherakoa izan, kasu berezietan izan ezik.

Berme-epea amaitu aurreko hamabost eguneko aldiaren, obra-zuzendari fakultatiboak, bere kabuz edo kontratistak halaxe eskatuta, txosten bat egingo du obren egoerari buruz. Txosten hori aldekoa bada, kontratista erantzukizun orotatik libre geratuko da; bermea itzuli edo ezereztu, kontratua likidatu, eta, hala badagokio, ordaindu gabeko betebeharrak ere ordainduko zaizkio, hirurogei eguneko epean. Txostena ez bada aldekoa eta ikusitako akatsak obrak egitean agertu badira eta ez eraikitakoa erabiltzean, zuzendari fakultatiboak, berme-epeak dirauen bitartean, dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpon dezan; horretarako, epe bat jarriko dio, eta, epe horrek dirauen bitartean, kontratistak izango du obrak kontserbatzeko ardura, eta ez du eskubiderik izango berme-epea luzatzeagatik dirurik jasotzeko.



- Zatika hartu ahalko dira aldika egin eta jendearen erabilerarako entrega daitezkeen obra-zatiak, Ezaugarrien Taularen D.5 apartatuan baimentzen bada.
- Baldin eta, espedientean behar bezala arrazoitutako interes publikoko arrazoiak agertzen direlako, kontratazio-organoak erabakitzen badu obrak benetan okupatzea edo obra horiek erabilerara publikorako martxan jartzea, nahiz eta harrera-egintza formalki beteta ez egon, halakoetan, obrak hartzeko egintzari dagozkion efektuak eta ondorioak sortuko dira berdin-berdin, erabakitakoa betetzen den unetik beretik, erregelamenduz ezarritakoaren arabera betiere.

## **32. - SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.-**

1) Lege honetan aipatutako kausa orokorrez gain, hauek dira obra-kontratua suntsiarazteko kausak:

- Zuinketaren egiaztapena arrazoi justifikaturik gabe berandutzea.
- Obren hasiera lau hilabete baino gehiago etetea.
- Administrazioak zortzi hilabete baino gehiagoz obrak etetea.
- Atzera egitea.

2) Suntsiarazpen horren ondorioak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 213. eta 246. artikuluetan aurreikusitakoak izango dira.

## **IV. KAPITULUA: AZKEN XEDAPENAK**

### **33. PREZIOA ORDAINTZEA**

#### **a. Obrak neurtzea eta obra-ziurtagiria egitea.**

Ordainketetarako, hilerio, dagokion hilaren ondorengo lehen hamar egunetan, aldi horretan proiektuari jarraituz egindako obraren ziurtagiria egingo da. Ordainketa horiek kontura egindako ordainketak izango dira, eta azken neurketan egiten diren zuzenketek eta aldaketek agindutakoaren menpe geldituko dira, baina horrek inola ere ez du esan nahi ziurtagiriotan jasotako obrak ontzat eman eta hartu egiten direnik.

Kontratistak, halaber, eskubidea izango du konturako ordainketak jasotzeko prestaketa-lanengatik, hala nola obrara atxikitako materialak nahiz makina astunak eta ekipamenduak instalatu eta biltzeagatik, kasu bakoitzeko administrazio-klausula partikularren agirietan adierazitako baldintzak aintzat hartuta, eta erregelamenduz oro har ezarritako araubidea eta mugak errespetatuta; bermea jarriz asegaratu behar dira aipatutako ordainketok.

#### **b. Faktura eta ordainketa.**

1) Kontratistak, hileko obra-ziurtagiria jaso ondoren, faktura entregatuko du Partzuergoko sarrerako erregistro orokorrean, izapidetu dezan. Kontratuaren arduradunak adostuko ditu fakturak, eta indarreko xedapenekin bat etorritik egingo dira; zehazki, honako hauek jaso beharko dituzte: zenbakitze seriatua, bidalketaren eguna, egindako lanen deskribapena, igortzailearen eta hartzailearen IFK eta jasanarazitako BEZa.



Partzuergoak faktura onetsi eta 30 egun naturaleko epean egingo da ordainketa. Fakturarekin batera, zuzendaritza fakultatiboko titularrak egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, edo kontratua osorik edo zati batean egin dela egiaztatzeko dokumentuak (obra-ziurtagiriak).

Aurkeztu den fakturari eska daitekeen betekizunen bat falta zaiola ikusten bada, zuzentzeko eskatuko da, eta, zuzendu arte, ez da ordainketarako epea zenbatzen hasiko.

Prezioa hileko banku-transferentziaren bidez ordainduko da, indarreko araudiarekin bat bidalitako fakturaren kontra; hala badagokio, kontratuaren ordezkari izendatutakoak behar bezala adostu beharko du faktura. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritakoaren arabera ordainduko du fakturen zenbatekoa.

Adjudikaziodunak aurreko hilabetean egindako lanei dagokien faktura aurkeztu beharko du, hileko lehenengo hamar egunetan. Fakturak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoara bidaliko dira, sarrerako erregistro orokorraren bidez (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren web-orriko Hornitzaileen Atarian). Hornitzaileen Atariak, hainbat aukeraren artean, fakturak erregistratzeko aukera ematen die behar bezala baimendutako pertsonari.

**[https://www.consorcioodeaguas.com/Web/CertificadoDigital/portal\\_provee\\_dor.aspx](https://www.consorcioodeaguas.com/Web/CertificadoDigital/portal_provee_dor.aspx)**

Transferentziaren hartzailearen kontu korrontean edozein aldaketa egiten bada, Hornitzaileen Atarian izapidetu beharko da aldaketa hori.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kontu-hartzailetza izango da kontabilitate-arloko eskudun organoa.

Fakturaren hartzailea, beraz, Partzuergoaren kontu-hartzailetza izango da, eta, fakturan, kontratazio-espeditatearen zenbakia eta kontratuaren arduradunaren edo zuzendariaren izena jaso beharko dira.

Kontratistak hirugarren bati laga ahalko dio, lege ezarritako edozein bitarteko erabilita, kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea; alabaina, lagapenak ondorioak izan ditzan eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ordainketa lagapen-hartzailearen alde egin dezan, lagapen-erabakia modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio azken horri (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen 200. art.).

Bestetik, elektronikoki fakturatzera derrigortuta ez dauden pertsona fisikoek faktura elektronikoak aurkezteko eskubidea baliatu ahalko dute beti.

Faktura elektronikoa erabiltzen ez bada, kontratistek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren erregistro orokorrean aurkeztu beharko dituzte fakturak, bazter utzi gabe Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritakoa.

Fakturan, fakturaren hartzaile diren administrazio-organismoak identifikatu behar dira.

**2) Proiektuaren arabera egindako lana bakarrik ordainduko da. Kontratistak ezingo du agindutakoez bestelako obrarik egin, arauz izapidetutako “zerbitzu-agindurik” gabe.**



3) Prestaketa-lanak, material-pilaketak eta obretara atxikitako makineria-bilketak kontura ordaintzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 198. artikuluan xedatutakoari helduko zaio.

4) Kontratatistak ezingo du preziorik edo kalte-ordainik eskatu kontratuan agindutakoez bestelako lanengatik, "zerbitzu-agindurik" gabe egin baditu, ezta horrela egindako lanak proiektua ezin hobeto egitea ziurtatzeko behar-beharrezkoak zirela argudiatzen eta egiaztatzen badu ere, aurreko apartatuetan adierazitakoaren ondorioz.

5) Lizitatzailerak, faktura bakoitzarekin batera, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela erakusteko ziurtagiri eguneratua aurkeztu behar du; zorrik egonez gero, horiek kitatu arte itxarongo da ordainketa izapidetzeko.

6)

- a) Erregulazio harmonizatuko kontratuetan eta 2 milioi euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten kontratuetan, azpikontratatistak edo hornitzaileak, ordainketa-epea igarotakoan, fakturak ordainarazteko egintzak abiatzen baditu kontratista nagusiaren aurka, egoitza judizial edo arbitralean, kontratazio-organoak behin-behinean atxikiko du behin betiko bermea, harik eta kontratatistak egiaztatzen duen arte ebazpen judizial edo arbitral irmoan deklaraturako eskubideak ordaindu dituela.
- b) Kontratatistak kontratuaren azpikontratatistei egindako ordainketen ziurtagiria aurkeztu beharko du obra-ziurtagiri bakoitzean.

#### **34. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BENETAKO BERDINTASUNERAKO ETA INGURUMEN-BABESERAKO BETEBEHARRAK (LANEKOAK ETA SOZIALAK).**

**a) Betebehar sozialak eta lanekoak.**

- Kontratatistak halabeharrez beteko du lanaren arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean den araudia. Kontratatistak betebehar horiek ez betetzeak ez dio erantzukizunik sortuko Partzuergoari.
- Adjudikaziodunaren konturako langile guztiek izan behar dute lan-kontratua. Langileok ez dute lan-harremanik izango Partzuergoarekin, adjudikaziodunaren mende baino ez baitira egongo, eta langileon patroi izateak berekin dakartzan eskubide eta betebehar guztiak izango ditu hark, lan-arloko legediarekin bat; bestalde, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari inola ere ez zaio sortuko adjudikaziodunaren eta haren langileen artean sortutako betebeharren gaineko erantzukizunik, ezta langile-kaleratzeak edo adjudikaziodunak hartzen dituen bestelako neurriak kontratu hau bete, urratu, desegin edo interpretatzearen zeharkako edo zuzeneko ondorioa direnean ere. Halaber, adjudikaziodunak Gizarte Segurantzari alta eman behar die jardueran zerbitzu ematen duten langile guztiei, eta lan-istripuak estaliko dituen mutualitatearekin elkartze-agiria sinatu, legediak gaiaren inguruan ezartzen duen guztia zorrotz betetzearekin batera. Era berean, laneko segurtasun eta osasunaren arloko araudia eta laneko arriskuak prebenitzeko araudia bete beharko ditu.
- Ez da inolako lan-arloko loturarik egongo adjudikaziodunak kontratua betetzera bideratzen dituen langileen eta Partzuergoaren artean, langileok berariaz egongo

baitira adjudikaziodunaren zuzendaritza- eta antolaketa-ahalaren mende, lege ezarritako eremu osoan; hortaz, adjudikazioduna izango da kasuari aplikagarriak zaizkion lege-xedapen guztiak betetzeko arduradun eta behartu bakarra (bereziki, kontratazioari, Gizarte Segurantzari eta laneko segurtasun eta osasunari dagokienez). Esandako guztia dela-eta, langileok ez dute inolako lotura juridiko-laboralik izango Partzuergoarekin, legearen edo kontratuaren arabera kontrol- eta ikuskapen-ahalak izan arren.

- Adjudikaziodunak bere erantzukizunpean onartzen du Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak ezartzen dituen arauak eta lan-prozedura operatiboak beteko dituela eta langileei arauok betearaziko dizkiela.
- Partzuergoak errekerimendua egin ahalko dio adjudikaziodunari, adjudikatutako lanetara bideratutako langile guztien alta- eta baja-agirien kopiak edo Gizarte Segurantzari izandako aldaketen kopiak eman diezazkion, baita Gizarte Segurantzari egindako kuota-likidazioen kopiak ere (TC1 eta TC2 ereduak edo etorkizunean horien ordezkari diren ereduak). Partzuergoak hala eskatzen badu, kontratistak bere esku jarri beharko du kontratu hau betetzera bideratutako langileen kontratuei buruzko informazio zehatza. Aldaketarik egin nahi bada, horren berri eman beharko zaio kudeaketa-unitateari, aldaketa egin aurretik eta modu frogagarrian, eta ezingo da murriztu kontratua betetzera bideratutako langileen kopurua, ezta lanbide-kualifikazio berbera ez duten langileekin ordezkatu ere. Adjudikaziodunak ordezkatu nahi dituen nahiz sartu nahi dituen pertsonen lanbide-kategoria, kontratu mota, antzintasuna, asteko lanorduen kopurua eta eguneko ordutegia jasoko ditu helburu horrekin egiten duen jakinarazpenean.
- Adjudikaziodunak, kontratuaren indarraldian, bete egingo du langileen %2k gutxienez desgaitasunen bat edukitzeko betebeharra, edo baimendutako eta deklaraturako bestelako neurriak hartuko ditu, lizitazioaren unean emandako dokumentazioaren arabera, horretarako behartuta dagoelako, bat etorrita Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42.1 artikularekin. Administrazio honek, gainera, kontratua betearazteko edozein unetan eskatu ahalko dizkio manu hori betetzen ari dela egiaztatzeko behar diren dokumentuak.
- Era berean, adjudikaziodunak zehatz-mehatz bete beharko du lanaren arloan eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean den legediak jasotzen duen guztia, eta bera arduratuko da aseguru sozialez, subsidioez, kalte-ordainez, ordainsariez eta, oro har, lan-arloko edozein betebeharez.

## **b) Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako neurriak.**

**1)** Adjudikaziodunak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako plan bat egin eta aplikatzeko betebeharra beteko du, eta halaxe onartzen du agiri honen 14.2.g) klausulan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta, honako inguruabar hauetan:

- 50 langile baino gehiago edukitzea.
- Hitzarmen kolektibo aplikagarriak hala ezartzea.
- Lan-agintaritzak zehapen-prozedura batean zigorra ordezkatzeko neurri gisa ezartzea.

**2)** Hona hemen kontratua betearazteko baldintzen ezaugarriak, kontratuaren izaera eta prestazioen jarduera-sektorea aintzat hartuta:



- Kontratua betearazteko lanpostu, lanbide edo kargu maskulinizatuen % 25 gutxienez emakumeek betetzea, emakumeen kontratazioa ez dadin mugatu feminizatuta egon ohi diren lanpostuetara.

**c) Ingurumen-arloko betebeharrak:**

Kontratatistak bete egin behar ditu indarreko araudian nahiz kontratazio hau gidatzen duten baldintza-agirietan ingurumena babesteko arloan ezartzen diren indarreko xedapenak. Kontratazio-organoak preskripzio teknikoen agirian adierazi ahalko du zer organismok eman diezaiekeen lizitatzailerei betebeharrak horiei buruzko informazio egokia. Bestetik, obrak egiteko lan guztiek bete beharko dituzte irizpide hauek:

- Obrak egiteko behar den ur-kontsumoa murriztu eta berrerabiltzeko neurriak hartuko dira.
- Obrako zuzendaritzak propio prestatutako tokian utziko dira eraikuntzako materialak, lurrak eta hondakinak.
- Auzokideei eta langileei eragozpenak eragin diezazkieketen zaratak eta bibrazioak murrizteko neurriak hartuko dira, eta, horri begira, herritarren atseden-ordutegietatik kanpo egingo dira eragozpenok sortzen dituzten lanak, betiere zaratari buruzko araudi espezifikoak betez.
- Obrak sorrarazten dituen hondakinak indarreko araudian jasotzen denaren arabera tratatuko dira.
- Kontratua betearaztean, ez dira atmosferako ingurumena, natura-baliabideak (ur-lasterak, baso-masak...) eta bestelako edozein ondasun kutsatuko, zuzendaritzak kutsadura saihesteko ematen dituen aginduak betez.
- Ingurumen-arloko arauak urratuz gero, oso larritzat jotako zigorrak ezarriko dira.

Klausula honetan azaldutako betebeharrak funtsezko baldintzak dira kontratuan, eta, beraz, betetzen ez badira, kontratua suntsiarazi ahalko da.

**d) Datuen babesa**

Adjudikaziodunak datuen babesaren arloko indarreko araudia bete beharko du.

Sektore publikoko entitateek datuak laga behar badituzte kontratu bat betearazteko, kontratistarentzako baldintza berezia izango da autonomia-erkidegoak, Estatuak eta Europar Batasunak datuen babesaren arloan dituzten araudiak betetzea; betebeharrak horrek funtsezko kontratu-betebeharraren izaera izango du.

Datuen babesaren arloko indarreko araudian xedatzen denaren arabera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa da datuak tratatzeko arduraduna (aurrerantzean, Arduraduna).

Arduradunak legitimitatea dauka lizitatzailerek lizitazioan parte hartzeko emandako datuak tratatzeko, honako helburu hauetarako:

- a) Lizitatzailerek lizitazioan parte hartzeko izapideak kudeatzea. Tratamendu hau legitimatuta dago, lizitatzailerek baimena eman dutelako hautagaitza aurkezteko orduan.
- b) Aldeen artean sortzen den harreman juridikoa kontrolatu eta gauzatzeko erabiliko dira adjudikaziodunaren datuak. Tratamendua legitimatuta dago, kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko kontratuaren arabera.
- c) Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egokitzen jotako bitartekoen bidez argitaratuko ditu lizitatzaileren eta adjudikaziodunen datuak; bereziki,



webgune korporatiboaren bidez, besteak beste kontratazioei eta hornitzaileei buruzko informazioa jasotzen baitu. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak helburu hori baimentzen du.

Harremanak iraun bitartean, datu pertsonalak tratatu eta gordeko dira, baita harremana amaitutakoan ere, indarreko legediak ezarritako epeen arabera Arduradunak datuok tratatu eta/edo gordetzeko legitimitatea eduki artean.

Tratatze aldera bildutako datu pertsonalei dagokienez, lizitatzailleek datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko eta eramateko eskubideak baliatu ahalko dituzte. Halaber, inguruabar jakinetan, lizitatzailleek eskubidea izango dute datuen tratamendua mugatzea eskatzeko edo tratamenduari aurka egiteko; horrelakoetan, Arduradunak datuon tratamendua etengo du, eta erreklamazioak egiteko edo erreklamazioetan defendatzeko bakarrik gordeko ditu.

Eskubide horiek baliatzeko, idatzizko eskaera bidali beharko zaio Arduradunari, Ezaugarrien Taulan harremanetarako adierazitako datuen bidez, indarreko legediak ezarritako baldintzetan. Era berean, erreklamazioak edozein unetan bidali ahalko zaizkio Arduradunari edo Datuak Babesteko Euskal Agentziari, entitate honek [www.avpd.euskadi.eus](http://www.avpd.euskadi.eus) web-orrian eskuragarri dituen formularioen bidez.

Adjudikaziodunak, zerbitzua emateko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ardura peko datu pertsonaletara sartu behar badu, tratamenduaren arduradun bihurtuko da datuak babesteko araudiaren ondorioetarako. Kasu horretan, tratamendu horren baldintzak arautzeko kontratu bat formalizatu beharko da; kontratuan, honako alderdi hauek jaso beharko dira gutxienez:

- a) Adjudikaziodunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ematen dizkion jarraibide dokumentatuen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak, eta bere ustez datuak babesteko araudia urra dezakeen edozein inguruabarren berri eman beharko dio Partzuergoari. Tratamenduaren azpiarduradunek ere Partzuergoaren jarraibideak jarraituko dituzte, baita datuen nazioarteko transferentzietan ere, zeinak Partzuergoak aurretik baimendu beharko baititu.
- b) Adjudikaziodunak tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten baditu, arduraduntzat joko da, eta, beraz, datuak babesteko araudian ezarritako legeko erantzukizunak izango ditu.
- c) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluan xedatzen dena betetzeko, arriskura egokitutako segurtasun-maila bermatzeko behar diren neurri teknikoak eta antolaketakoak aplikatzeko eta eguneratzeko konpromisoa hartuko du adjudikaziodunak, kontuan hartuta teknikaren egoera, aplikazioaren kostuak eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak, baita pertsona fisikoen eskubide eta askatasunerako probabilitate- eta larritasun-arrisku aldakorrak ere.
- d) Adjudikaziodunak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (DBEO) eta dagokion lege organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ari dela erakusteko informazio guztia jarriko du Partzuergoaren esku. Zentzu horretan, auditoretzak (baita ikuskapenak ere) egiteko baimena eta laguntza emango dizkio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari edo hark baimendutako beste auditore bati.



- e) Agirian jasotzen diren tratamendu-operazioak egiteko DBEO 35. artikuluan aipatzen den inpaktua ebaluatu behar bada, adjudikaziodunak inpaktu-ebaluazioak eta aurretiko kontsultak egiten lagunduko dio Partzuergoari.
- f) Adjudikaziodunak, bere ardurapeko datu pertsonalen segurtasuna urratu dela jakiten badu, horren berri emango dio Partzuergoari, gehiegi berandutu gabe, gertakaria dokumentatu eta komunikatzeko informazio garrantzitsu guztiarekin batera.
- g) Tratamendu-jardueren erregistroa mantenduko du, DBEO 30.5 artikuluan aurreikusten den salbuespena aplikatzen ez bada.
- h) Partzuergoaren nahieran, adjudikazioak betebeharrak hauek izango ditu zerbitzua ematen aमितzen duenean:
  - datu pertsonal eta kopia guztiak ezabatzea, legezko arauen batek horiek kontserbatu behar direla adierazi ezean; kasu horretan, ez dira datu pertsonalak ezabatuko
  - tratamendu-zerbitzuak amaitutakoan datu pertsonal guztiak itzultzea eta egindako kopia guztiak ezabatzea.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 28.2 artikuluan ezarritakoa bazter utzi gabe (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da erregelamendu hori, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du), kontratistak honako hauek jasoko ditu agiriaren karatulan, tratamenduaren arduradunaren konturako datu pertsonalak tratatu behar baditu kontratu bat betearazteko:

a) Datuok lagatzearen helburua.

b) Etorkizuneko kontratistak nahitaez bete beharko duela Estatuko eta Europar Batasuneko araudia, datuen babesari buruzkoa, 202.1 artikuluko azken paragrafoan ezarritakoa bazter utzi gabe.

c) Enpresa adjudikaziodunak adierazpen bat aurkeztu beharko duela kontratua formalizatu aurretik, adierazteko non kokatuko diren zerbitzariak eta nondik emango diren zerbitzariei lotutako zerbitzuak.

d) Kontratua gauzatu bitartean c) letran aipatutako adierazpenean eman den informazioa aldatzen bada, adjudikaziodunak aldaketa horren berri emango duela.

e) Lizitatzailleek eskaintzan adierazi beharko dutela zerbitzariak edo zerbitzariei lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmorik duten eta enpresaren izena edo profila zein den (zerbitzua aginduko zaien azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoaren arabera izango da profila).

Aurreko paragrafoan aipatzen diren kontratuen pleguetan, a) eta e) letretan jasotako paragrafoak funtsezkoak izango dira beti, 211.1.f) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.



Bilbon, sinadura elektronikoaren datan

**KONTRATAZIO-ATALEKO ARDURADUNA**



## PROPOSAMEN-EREDUA

..... jaunak/andreak, adin nagusikoa denak eta  
..... helbidea eta ..... NAN-zk. dituenak, bere izenean edo  
..... enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz, zeinak .....  
helbidea eta ..... telefono-zk. baitauzka, ..... udalerriko  
..... notario jaunak/andreak .....(e)an ..... protokolo-  
zenbakiarekin bere alde emandako ahalordetze-eskrituran ondorioztatzen denez,  
**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ..... kontratatzeko asmoz**  
**lizitazioa (espediente-zk.: .....) deitu duela jakinda, hau adierazten du:**

1) Kontratu hau gidatuko duten administrazio-klausulen agiria, preskripzio teknikoen agiria eta gainerako dokumentazioa ezagutzen ditut, eta kontratu hau berariaz onartzen dut, oso-osorik.

2) Ordezkatzun dudak enpresak irekitzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko betekizun eta betebeharrak guztiak betetzen ditu, indarreko araudiak eskatzen dituenak.

3) **Kontratua ..... euroko prezioan betearazteko konpromisoa hartzen dut, BEZa kenduta, .....(e)ko epean eta .....(e)ko berme-epearekin.**

Prezio horien barruan, kontzeptu guztiak sartuta daude, edozein esfera fiskaletako zergak, gastuak, tasak eta arielak nahiz kontratistaren onura industrialak barne hartuta baina balio erantsiaren gaineko zerga kenduta.

**(Tokia, eguna, izena, NAN-zk., sinadura eta zigilua)**

**Eranskina:   Prezio unitarioen zerrenda eta aurrekontua**



**II. ERANSKINA:**  
**LOTUTAKO ENPRESAK DEKLARATZEKO EREDUA.**

..... jaunak/andreak, adin nagusikoa denak, ..... kolean edo plazan bizi denak eta ..... NAN-zk. duenak, bere izenean edo ..... ordezkatzuz, ..... gisa, honako hau adierazten du, bere erantzukizunpean, [PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA] deituriko obrak kontratatzeke aurkeztutako proposamenari buruz:

(Adierazi egokitzen dena):

☐ Erantsitako zerrendan sartutako enpresak enpresa eskaintzailearekin lotuta daude, eta ez dago manu horretan adierazitako betekizunak biltzen dituen beste enpresarik.

Sozietatearen izena: ....., IFZ/IFK: .....

1.-

2.-

3.-

☐ Enpresa eskaintzaileak ez dauka lotutako enpresarik.

Tokia, eguna eta lizitatzzailearen sinadura.



### **III. ERANSKINA**

## **BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN INGURUMEN-BETEKIZUNAK**



### INGURUMEN POLITIKA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren egiteko nagusia partzuergoratuak udalen lurralde-eremuan ur hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea da.

Partzuergoak, iraunkortasun eta bikaintasun printzipioei jarraiki, uste du alde batera utzi ezinezko betebeharrak dela bere jardueraren ingurumen alderdiak kudeatzea, aplikagarriak diren nazioarteko irizpideekin bat etorriko den eta erakundearen prozesu guztietara iritsiko den kudeaketa sistema baten bitartez. Horretarako, jarraian adieraziko diren konpromisoak garatzen dituzten ingurumen arloko helburuak eta xedeak ezartzen ditu:

- Indarrean dagoen ingurumen arloko legeria aplikagarria betetzea, bai eta bere gain hartzen dituen beste era bateko ingurumen-betebeharrak ere.
- Ingurumen-eraginak minimizatzea eta kutsadura prebenitzea, bere jardueraren alderdi guztietan eskuragarri dauden teknologia eta praktikarik onenak aplikatuz.
- Bere prozesuetarako beharrezkoak diren baliabide naturalen, baliabide energetikoen eta lehengaien kontsumoa optimizatzea.
- Ezarritako ingurumen kudeaketarako sistemaren funtzionamendua eta ingurumen arloko portaera etengabe ikuskatu eta hobetzea.
- Erakundearen prozesu eta maila guztietan iraunkortasun-irizpideen ezarpena sustatzea, kalitate sistema, laneko arriskuak prebenitzeko sistema eta ingurumen sisteman Kudeaketako Sistema Integratuan sartzea ahalbidetuz.
- Langileek betetzen dituzten zereginetan ingurumen-prestakuntza egokia sustatzea, ingurumenari dagokionez daukaten trebakuntza eta motibazioa handitzeko.
- Ingurumen arloko konpromiso hauek eta lortutako emaitzak erakundearen maila guztietan nahiz bezeroen, hornitzaileen, kontratisten eta jendearen artean hedatzea.

Bilbon, 2008ko urriaren 23an

*Pedro María Barreiro*

Pedro María Barreiro Zubiri  
Gerentea

### POLÍTICA AMBIENTAL

El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia tiene como misión primordial la prestación de los servicios de abastecimiento de agua y saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen.

El Consorcio, siguiendo principios de sostenibilidad y excelencia, considera una obligación ineludible gestionar los aspectos ambientales de su actividad por medio de un sistema de gestión, acorde con los criterios internacionales aplicables y que alcance todos los procesos de la entidad. Para ello, establece objetivos y metas medioambientales que desarrollan los siguientes compromisos:

- Cumplir la legislación ambiental vigente aplicable, así como las obligaciones ambientales de otro tipo que se asuman.
- Minimizar los impactos ambientales y prevenir la contaminación aplicando las mejores tecnologías y prácticas disponibles en todos los aspectos de su actividad.
- Optimizar el consumo de recursos naturales, energéticos y materias primas necesarios para sus procesos.
- Revisar y mejorar constantemente su comportamiento ambiental y el funcionamiento del sistema de gestión ambiental implantado.
- Promover la incorporación de criterios de sostenibilidad en todos los procesos y niveles de la organización, facilitando la integración de los sistemas de calidad, prevención de riesgos laborales y medio ambiente en un Sistema Integrado de Gestión.
- Proporcionar la formación ambiental adecuada a las funciones que desempeñan sus empleados con objeto de aumentar su preparación y motivación respecto al medio ambiente.
- Difundir estos compromisos y el resultado de su desempeño ambiental a todos los niveles de la organización, sus clientes, proveedores, contratistas y al público en general.

Bilbao, 23 de octubre de 2008



**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREKIN (BBUP) EGITEN DIREN KONTRATUETAN APLIKATZEKOAK DIREN INGURUMEN-ARAUAK**

Kontratua sinatuta, adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du dokumentu honetan jasotzen diren betekizun guztiak betetzeko, kontratatutako lanen garapenean aplikagarriak suertatzen diren neurrian, eta, halaber, beharrezkoa izanez gero, betekizunok betetzen ari dela erakusteko ebidentziak emango ditu.

**ARAU OROKORRAK**

- ❖ Kontratuaren adjudikaziodunak bermatu egin behar du kontratuaren xedearen harira egiten dituen jardueri aplika dakizkiekeen legezko betekizun guztiak beteko dituela.
- ❖ BBUPrako lan egiten duten langile guztiek lanok egiteko eta jardueraren ingurumen-alderdiak ondo kudeatzeko behar diren lanbide-gaitasuna eta prestakuntza-maila izango dituzte, eta adjudikaziodunaren ardura izango da bere ekipoak kontratatutako zerbitzuen xedera egokitzea.
- ❖ Adjudikazioduna arduratuko da lanak egin bitartean natura-baliabideak (energia, ura...) zentzuz erabiltzen direla zaintzeaz.
- ❖ Adjudikaziodunak prebentzio-neurri guztiak hartu beharko ditu, kontratatutako lanak egin bitartean ingurumenean inpaktu kaltegarriak ez sortzeko edo inpaktuok murrizteko.
- ❖ Adjudikaziodunak beharrezko kontingentzia-baliabideak izango ditu, kontratatutako lanekin zerikusia duten larrialdi-egoerei aurre egiteko.
- ❖ Ingurumen-arloko gertakariak edo istripurik gertatuz gero, adjudikaziodunak ahalik eta lasterren emango dio horren berri kontratuaren zuzendariari. Hark gertakariari buruzko idatzizko txostena eskatu ahaliko du gero (kausak eta abian jarritako zuzenketa-ekintzak).
- ❖ BBUPk beretzat gordetzen du ingurumen-arloko betebeharrak ez betetzeagatik sortzen diren gastuak eta ekintzak adjudikaziodunari jasanarazteko eskubidea.



## ARAU ZEHATZAK

### **HONDAKINAK**

- ❖ Adjudikazioduna arduratuko da lanak egin bitartean sortutako hondakin guztiak kudeatzeaz, eta erabat debekatuta dauka edozein hondakin BBUPren instalazioetan deuseztatu edo uztea. Halaber, debekatuta dauka hondakinak nonbaiten uztea, isurtzea, erretzea edo kontrolik gabe deuseztatzea.
- ❖ Hondakinak xede horretarako ondo identifikatutako edukiontzi independenteetan utziko dira.
- ❖ Ez dira hondakin arriskutsu desberdinak nahastu behar, ezta hondakin arriskutsuak eta arriskutsuak ez direnak ere.
- ❖ Hondakinak indarreko legediaren arabera kudeatuko dira, premisa hauei jarraikiz:
  - Arauzko dokumentazio guztia edukitzea: onarpen-dokumentuak, lekualdaketen jakinarazpenak, kontrol- eta jarraipen-dokumentuak eta suntsitu izanaren ziurtagiriak.
  - BBUPrako garatutako jardueraren harira kudeatutako hondakinak jasotzen dituen erregistro eguneratu bat edukitzea.

### **ISURIAK**

- ❖ Saneamendu-sarera ezin da substantzia arriskutsurik (erregaia, disolbatzailea, pintura, olioak...) isuri. Adjudikaziodunari leporatu dakioken isuririk detektatzen bada, tratamenduaren gastuak egotziko zaizkio.
- ❖ Ezustekoan substantzia arriskutsuak isuriz gero, berehala jasoko dira, landare-lurzorura edo saneamendu-sarera iritsi ez daitezen, eta ahalik eta lasterren emango zaio gertakariaren berri BBUPri.
- ❖ Isurtzeko baimena behar duten obrak eginez gero, kontratistak jarduera hasi aurretik lortu beharko du baimen hori.

### **EMISIOAK**

- ❖ Lanak egin bitartean, ahal den neurrian, atmosferarako emisioak saihestuko dira.
- ❖ Hauts-emisioetan, neurriak hartuko dira; adibidez, eragindako eremua hezetzea eta emisioak eragin ditzaketen materialak eta kargak estaltzea.
- ❖ Debekatuta dago edozein material erretzea.



## **ZARATA**

- ❖ Kanpoaldean, ezingo dira gainditu lanak hartu dituen udalerriak ezarritako soinu-mugak.
- ❖ Ahal dela, zeregin oso zaratatsuak ez dira aldi berean egingo.
- ❖ Ekipoek eta makineriak ingurumen-arloko legedia beteko dute zaratari eta emisioei dagokienez. EE markaketari buruzko dokumentazioa eta jarraibideen eta mantentze-lanen liburua makinan bertan edo adjudikaziodunaren etxolan egongo dira.
- ❖ Enpresa kontratista arduratuko da makinerian aldizka mantentze-lanak egiteaz, zarata gehiago sortzea eragin dezaketen desdoikuntzak saihesteko.

## **PRODUKTU KIMIKOAK BILTEGIRATU ETA MANEIATZEA**

- ❖ Legez erregulatutako produktu kimiko bat erabili behar den aldiro, kontratistak produktua erabiltzeko baimen guztiak izango ditu, indarreko legedian ezarritako jarraibideekin bat.
- ❖ Erregaiak eta/edo arriskutsuak izan daitezkeen bestelako substantziak baldintza hauetan biltegitratuko dira:
  - Estalki azpian eta zolatutako zonan. Halaber, ezusteko isurketak kanpoaldera ez isurtzeko ontzi edo bilketa-sistema egokiak egongo dira. Isuriei eusteko sistema horiek garbi eta mantentze-egoera onean egongo dira. Isuriei eusteko edo isuriak berreskuratzeko laguntza-elementuak (xurgatzaileak) eduki behar dira.
  - Ontzi bakoitza ondo identifikatuta egongo da, eta biltegitratutako produktuen segurtasun-datuen fitxetan adierazitako biltegitratze-tokietan kokatuko da.
  - Produktu kimikoak biltegitratzeari buruzko legedia beteko da, biltegitratzeko kopuruei eta bateraezintasunei dagokienez.
  - Erabat debekatuta dago zolatu gabeko eremuetan substantzia arriskutsuak metatzea.

## **BBUP-REN INSTALAZIOETAN APLIKATZEKO ARAUAK**

- ❖ Erabat debekatuta dago BBUPren instalazioetan edozein jarduera mota hastea, kontratuaren zuzendariaren edo lanak gainbegiratzeko arduradunaren berariazko baimenik izan ezean.
- ❖ Adjudikaziodunak guztiz autonomia izan beharko du lanak egiteko. Halaber, adjudikazioduna arduratuko da laguntza-baliabide guztiez (garraioak, garabiak, aldamiok, talde elektrogenoak...).
- ❖ Oro har eta kontratuaren zuzendariak baimena ematen duenean izan ezik, adjudikaziodunak ezin izango ditu erabili BBUPren instalazioetako energia-iturriak (elektrikoa barne hartuta). Hortaz, bere kabuz sortu beharko du kontratatutako lanak egiteko behar duen energia elektrikoa, eta legezko dokumentazio guztia eduki.
- ❖ Hala adierazitako tokian ura hartzeko aukera emango zaio, baita saneamendu-sarera konektatzeko gune bat eskainiko ere (beharrezkoa bada), baina adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da uraren banaketa- eta saneamendu-sarea lantokietaraino eramatea. Biek egin beharko dute bat indarreko araudiekin eta segurtasun-arauekin, eta kontratuaren zuzendariaren oniritzia jaso.
- ❖ Lanen iraupenaren arabera, oro har eta instalazioan toki librea badago, adjudikaziodunak bere kontura jarriko ditu etxolak, komunak, biltegiak eta kontratatutako lanak normal garatzeko behar diren material-bilketak, kontratuaren zuzendariaren nahitaezko baimena lortu ostean.
- ❖ Adjudikazioduna bakarrik arduratuko da lantokia eta, hala badagokio, obrako etxolen eremua txukun eta garbi edukitzeaz, segurtasun- eta higiene-baldintza ezin hobeetan. Lanaldia amaitutakoan, egunero txukundu beharko dira eremuok. BBUPk beretzat gordetzen du eskubidea zabarkeria ikusiz gero eremuok garbitzeko, hirugarren bat kontratatuz; horrelakoetan, adjudikaziodunak ordaindu beharko du zerbitzuaren kostua.
- ❖ BBUPk ez du erantzukizunik izango adjudikaziodunaren laguntza-baliabideek jasan ditzaketen lapurreten edo kalteen aurrean. Hortaz, egokitzeak jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu ekipoak lanak amaitu arte seguru egon daitezen.
- ❖ Debekatuta dago BBUPren instalazioetan ibilgailuak eta makineria konpontzea eta ibilgailuetan edo makinerian mantentze-lanak egitea, kontratuaren zuzendariaren berariazko baimenik eduki ezean.
- ❖ Lanak amaitzen direnean, kontratuaren zuzendariak eman beharko du baimena instalazioak kentzeko eta obra osagarriak eraisteko, eta ahalmena izango du bere ustez obraren inguruabarrek ahalbidetzen dutenean elementuok kentzera derrigortzeko.
- ❖ Lursaila egokitzeak, instalazioak jarri, kendu edo lekualdatzeak, obra osagarriak eraistea eta okupatutako gainazalak egokitu eta garbitzeak sortutako gastuak (hots, guztiak jatorrizko itxura berreskura dezan egiten diren gastuak) adjudikaziodunaren kargura ordainduko dira, eta, obra oro har amaitutzat jo ahal izan dadin, kontratuaren zuzendariak ados egon beharko du.
- ❖ Kontratutako zerbitzuak hala eskatzen badu, adjudikazioduna arduratuko da instalazio berriak legeztatzeak egin behar diren lan eta izapide tekniko-administratibo guztiez (eskaerez, proiektuen idazketaz eta oniritziaz, ikuskapen ofizialez...), baita harrera-probak egiteaz ere. Adjudikaziodunaren kargura ordainduko dira sortutako gastu guztiak, eta, lanak amaitzen direnean, sortu den dokumentazio guztia emango dio kontratuaren zuzendariari.



- ❖ BBUPren instalazioetan jokatzeko moduari buruz zalantzarik edukiz gero, adjudikaziodunak kontratuaren zuzendariarengana edo harremanetarako pertsonarengana joko du, informazioa jasotzeko.



#### IV. ERANSKINA

##### **PERTSONA JURIDIKOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA**

..... jaunak/andreak, ..... NAN-zk. duenak,  
 ..... sozietatearen izenean (IFK: .....), bat etorrita  
 ..... ahalordetze-eskriturarekin (edo ordezkaturako pertsona  
 juridikoaren izenean jarduteko gaikuntza ematen duen dokumentuarekin), Bilbao Bizkaia Ur  
 Partzuergoan kontratatzeko helburuz,

honako hau ADIERAZTEN DU, bere erantzukizunpean:

- 1st.- Ordezkatzen dudana enpresak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin  
 ..... kontratua gauzatzeko behar diren jarduteko gaitasuna, gaitasun  
 juridikoa eta lanbide-gaikuntza dauzka. Enpresaren sozietate-helburua bat dator kontratu honen  
 xede den jarduerarekin, sozietatearen estatutuen ..... artikuluan jasotzen denaren arabera  
 (estatutuak egokitzen diren erregistroetan inskribatuta daude).
- 2nd.- (Aukeran)  
 Enpresa horrek esku artean dugun kontrataziorako eskatzen den sailkapena/kaudimena dauka.  
 Edo  
 Enpresa horrek esku artean dugun kontrataziorako lehiatzeko ezarri diren gutxieneko sailkapen-  
 edo kaudimen-betekizunak biltzen ditu, eta honela osatuko ditu (*markatu egokitzen dena*):  
 a- Lizitazioan lehiatzeko aldi baterako enpresa-elkarte bat osatuz .....  
 enpresarekin; hala, gure eskaintza kontratuaren adjudikaziodun gertatzen bada, ABEE hori  
 eratze berariazko konpromisoa hartzen dut (kasu honetan, etorkizuneko ABEEa osatuko duten  
 enpresa guzti-guztiekin sinatu behar dute adierazpena).  
 b- Kanpoko baliabideak eskuratuz, honako prestazio hauek emateko:  
 Kanpoko baliabide horiek ..... izango dira, eta .....  
 enpresak emango ditu. Horri begira, ..... bat sinatu dugu enpresa  
 horrekin.
- 3rd.- (Aukeran)  
 Lizitazio honetan EZ da lehiatuko ordezkatzeko dudana enpresaren enpresa-taldeko beste  
 enpresarik.  
 Edo  
 Ordezkatzen dudana enpresaren enpresa-talde bereko enpresa hauek eskaintzak aurkeztuko  
 dituzte lizitazio honetara:  
 .....  
 (*Enpresa-talde bereko sozietatetzat joko dira Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan jasotzen diren  
 kasuetako batean daudenak*).
- 4th.- Ez nik, ez ordezkatzeko ari naizen pertsona juridikoaren administratzaile batek ere ez  
 daukagu administrazioekin kontratatzeko debekurik, Sektore Publikoko Kontratazioei buruzko  
 Legearen 71. artikuluan ezartzen denik.
- 5th.- Ordezkatzen ari naizen enpresak egunean dauzka zerga-betebehar guztiak eta Gizarte  
 Segurantzarekiko betebehar guztiak.



6th.- Ordezkatzen ari naizen enpresak 50 langile edo gehiago DAUZKA/EZ DAUZKA, eta desgaitasunen bat duten langileak ..... dira; hau da, langileen % ..... kolektibo horretakoak dira. (*Aukeran, kasuaren arabera*) Beraz, langileen % 2k baino gehiagok desgaitasunen bat edukitzeko legezko eskakizuna betetzen da, legez ezarritako neurri alternatibo hauen bidez: .....

7th.- Aurkeztu dudak eskaintzak, langileei eta produktuak egiten eta/edo zerbitzuak ematen erabilitako ekoizpen-prozesuei dagokienez, baita kontratua betearaztean ere, ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak betetzen ditu, zeinak hitzarmen aplikagarrietan, Espainiako eta Europar Batasuneko zuzenbidean eta nazioarteko zuzenbidean (Europar Batasunak sinatutakoan) jasotzen baitira.

8th.- Hona hemen espediente honen inguruko komunikazio guztiak jasotzeko helbide elektronikoa: .....  
Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 140. artikuluan jasotzen denaren ondorioetarako, konpromisoa hartzen dut betekizun horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak aurkezteko, baldin eta ..... kontratuaren adjudikaziodun suertatzen banaiz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ezarritako epeetan. Hala, erantzukizunpeko adierazpen hau aurkezteko unean betekizun horiek guztiak biltzen ditudala adierazten dut, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari berariazko baimena ematen diot zuzenean egiazta ditzan.

....., 202...(e)ko .....aren .....a

Sin.: .....

(enpresaren zigilua)



## **V. ERANSKINA**

### **PERTSONA FISIKOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA:**

..... jaunak/andreak, ..... NAN-zk. eta jakinarazpenetarako  
..... helbidea duenak, bere izenean jardunez eta

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin kontratatzeko helburuz,

honako hau ADIERAZTEN DU, bere erantzukizunpean:

- 1st.- Jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridikoa dauzkat, baita Ezaugarrien Taulan eskatzen diren lanbide-gaikuntza, sailkapena eta/edo kaudimena ere, ..... kontratua betearazteko.
- 2nd.- Ez daukat administrazioarekin kontratuak egiteko debekurik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71. artikuluan ezartzen denik.
- 3rd.- Egunean dauzkat zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzarekiko betebehar guztiak.
- 4th.- Aurkeztu dudak eskaintzak, langileei eta produktuak egiten eta/edo zerbitzuak ematen erabilitako ekoizpen-prozesuei dagokienez, baita kontratua betearaztean ere, ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko betebeharrak betetzen ditu, zeinak hitzarmen aplikagarrietan, Espainiako eta Europar Batasuneko zuzenbidean eta nazioarteko zuzenbidean (Europar Batasunak sinatutakoan) jasotzen baitira.
- 5th.- Honako hau da espediente honen inguruko komunikazio guztiak jasotzeko helbide elektronikoa: .....

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 140. artikuluan jasotzen denaren ondorioetarako, konpromisoa hartzen dut betekizun horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak aurkezteko, baldin eta ..... kontratuaren adjudikaziodun suertatzen banaiz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ezarritako epeetan. Hala, erantzukizunpeko adierazpen hau aurkezteko unean betekizun horiek guztiak biltzen ditudala adierazten du, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari berariazko baimena ematen dio zuzenean egiazta ditzan.

....., 202...(e)ko .....aren .....a

Sin.: .....



## VI. ERANSKINA

### **ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO EREDUA**

(ADMINISTRAZIOAK ESKATZEN DUENEAN BAKARRIK AURKEZTU BEHAR DA)

..... jaunak/andreak, ..... udalerriko  
..... kalean bizi denak eta ..... NAN-zk. duenak, bere  
izenean/..... enpresa ordezkatzuz (..... udalerriko  
..... kalea, ..... PK eta ..... IFK),

honako hau adierazten du:

..... (*gutunazalaren izena jarri*) gutunazalean aurkeztu dudak dokumentazioan,  
eskaintzaren informazio eta dokumentu hauek konfidentzialak dira, sekretu tekniko edo  
komertzialekin lotuta baitaude:

.....

.....

.....

....., 202...(e)ko .....aren .....a

Sin.: .....

(enpresaren zigilua)



## VII. ERANSKINA: AZPIKONTRATAZIOA

### KONTRATU NAGUSIKO PRESTAZIOEN ZATI BAT EGITEKO AZPIKONTRATAZIO-PROPOSAMENA

**Kontratua:** Kontratuaren izena  
**Espedientea:** XXXX  
**Adjudikazioduna:** Enpresaren izena  
**Adjudikazioaren aurrekontua:** XX € + BEZa

\_\_\_\_\_ jaunak/andreak, \_\_\_\_\_ NAN-zk. duenak, bere izenean edo \_\_\_\_\_ enpresa (IFK: \_\_\_\_\_) ordezkatzuz, \_\_\_\_\_ gisa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean jasotzen dena betetzeko, honako hau adierazten du:

- ☐ Ez daukat azpikontratatzeko asmorik.
- ☐ Enpresa hau/hauek azpikontratatzeko asmoa daukat (beherago, enpresa horien datuak jasotzen dira).
  - Enpresa horiek ez daude kontratatatzeko ezgaituta, ezta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71. artikuluan jasotzen diren kasuetako batean ere.
  - Azpikontratatuak dituzten prestazioek ez dute gainditzen pleguetan ezarritako gehieneko ehunekoa.
  - Enpresa nagusia den heinean, \_\_\_\_\_ (*enpresaren izena*) enpresak konpromisoa hartzen du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 215. artikuluan jasotzen dena betetzeko.
  - Obra-kontratuetan, enpresa azpikontratatistek urriaren 18ko 32/2006 Legean ezarritako betekizunak bildu beharko dituzte.

| AZPIKONTRATISTA<br>REN NORTASUNA | AZPIKONTRATATUKO<br>DEN PRESTAZIO-<br>ZATIA | LANAK<br>HASTEKO<br>EGUNA | AURREIKUSI<br>TAKO<br>IRAUPENA | ADJUDIKAZIOARE<br>N GAINEN %A |
|----------------------------------|---------------------------------------------|---------------------------|--------------------------------|-------------------------------|
|                                  |                                             |                           |                                |                               |

Bilbo, 202(e)ko .....aren .....a

Sin.: Izen-abizenak

Kontratistak